

uk

128. zenbakia / 2007 azaroak 25



GETXO arte 2007

Arte sortu berrien aretoa / Salón de las artes emergentes

Azaroaren 30etik abenduaren 2ra
del 30 de noviembre al 2 de diciembre

Areetako Geltokia plazako karpan / Carpa de la plaza Estación de Las Arenas
Ordutegia / Horario: 11:00 - 14:00 / 17:00 - 21:30

SARRERA / ENTRADA: 2 €

Beste sarrera bat doan, Gazte txartela, BBK 26, edo unibertsitate kameta aurkeztuz
Otra entrada gratis, presentando el carnet joven, tarjeta BBK 26 o carnet universitario



"AB-1550-Y-30JAN" (Fotograma)
INGRID BUCHWALD

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Nazioarteko Trikitixa eguna, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Neguriko Eguzkialde etxea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Juan Cardas.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Loreak.
28. ARGAZKIA. Turistak Bilbon, Manuel Vazquez.
30. BERBETAN. Roge Blasco, Maitane Nerekan.
34. FOTOGRAFIA. Txetxu Berruezoren kirol argazkiak.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Zinebi jaialdia.
43. MUSIKA. Punk jardunaldiak. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Woody Allen euskaraz. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Jose Ramon Aretxabaleta Aretxa I.
46. ELKARRIZKETA. Willy graffiti egilea.

AMAITZEKO

49. NON JAN. Alberto Etxeandia gozoglea.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Zugatzarte Futbol Taldea 1930, Bittor Egurola.
54. AITORMENAK. Kamele Jaio, Ander P. Goikoetxea.

Azaleko argazkia, motokros erakustaldia BECen, 2006 (Txetxu Berruezo)



30 Roge Blasco



11 Juan Cardas

Berbetan

Irrati esatari zintzoa, bidaiazalea eta solidarioa. Getxoztar peto-petoea eta herri honen plan urbaniskoaren kontrakoa. Beragaz egon gara.



34 Txetxu Berruezoren argazkiak



14 Eneko Intxausti



54 Kamele Jaio



45 Jose Ramon Aretxabaleta



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra

www.renaultleioa.com

Iparagirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA
Tel.: 94 480 46 02 • Faxa: 94 480 42 43



metro bilbao

ELCORREO



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Ander P. Goikoetxea,
Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentakaka

TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bitor Egurrola,
Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezcaga, Itaso Arana,
Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra
Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF


LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarten
Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Abenduaren 3a

Euskararen eguna ospatzen da urteko azken hilaren egun horretan. Erraza da esatea euskarak urteko egun guztiak behar dituela eta ez bakarria. Erraza esatea ere bada ez garela egun seinatu horien zale, hau da, emakumearen eguna, gay eta lesbianena... Horrelakoak gaur egun ere ospatzeko beharra baldin badago, zeozer ondo ez dabilen adierazle dela hori. Eta ados egon gaitezke honekin. Baina hor nonbait, praktikoagoak izan gura dugu orainoan, eta ez betiko moduan hain negarti edota ezkor azaldu.


Euskararen egunaren harira, makina bat ekitaldi antolatu dituzte eskualdean. Egia da, guztiak udaletako euskara zerbitzuek bultzatutakoak direla eta, akaso, erakunde ez ofizialen ekimenen falta igartzen dela.

Beste herrietakoak gutxietsi barik (bakoitzak bere neurrian dihardu-eta), *Gu geu* honetan Getxoko Euskara Zerbitzuak prestatu duen kultur programa oparoa azpimarratu behar dugu: Euskarashow (etorkinak eta bertakoak elkarrekin kantuan), Umore Jardunaldiak... Euskaraz gozatzeko makina bat ekitaldi atsegin. Guztiak aprobeztatzekoak!

Batzuek esango dute baliabideekin erraza dela horrelako egitaraua aurrera ateratzea. Guk, berriz, baliabide horiek guztiak Udalak euskararen eta euskaldunen mesedetan ipintzea poztekoa dela diogu. ✓

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua




Gorka Vázquez

aipagarria > Sendi egitasmoa



Getxoko gurasoek seme-alabekin euskara erabili eta belaunaldien arteko hizkuntza transmisioa du helburu egitasmo honek. Lantegiak eta hitzaldiak antolatzen dituzte. Azkenekoan (ezkerreko argazkia) Julio Ibarra kazetari ezagunak eta Iñaki Eizmendi gizarte hezitzaileak "nola lagundu nire seme-alabei euskaraz bizitzen?" galderari erantzuten ahalegindu ziren. Proiektu hau Getxoko Udala eta Egizu Euskara Elkartearen arteko elkarlanaren fruitua da. Ekimen txalogarria.

Argibide gehiago: www.blogari.net/sendi



[irudia]

GETXO, 2007KO AZAROAREN 3A

Nazioarteko Trikitixa Eguna / Batzuentzat dantza mota bat da, beste batzuentzat berriz, musika estilo bat, baina musika tresna da trikitixa, akordeoi diatonikoa. Azaroaren 9an Nazioarteko Trikitixaren seigarren jaialdia ospatu zen Getxo Antzokian. Bertan parte hartzeko, Mexiko Berria, Italia, Belgika eta Herrialde Katalanetako musikariak gonbidatu zituzten. Huez guztiez gain, Agus Barandiaran eta Mikel Romero, Eneko Odiaga, Galder Elortza, Victor Muñoz eta Irkus Ansotegi euskaldunak ere bertan izan ziren. ○ / Argazkia: **Asier Mentakaka**

Gehitu Kirolera!

Abenduaren 3an, 20:30

Algotake Kultur Etxean (Villamonte)



MEMORIAL ITZIAR LÓPEZ URALDEren OROIMENEZ / ASPANOVAS / EUGENIA EPALZA FUNDAZIOA - ESCLEROSIS MÚLTIPLE) / SAN NIKOLAS PALA TXAPELKETA / ROMO FÚTBOL CLUB / CLUB DEPORTIVO GALEA / ITURGITXI FÚTBOL CLUB / CLUB TENIS FADURA / CLUB ARCO / AKELARRE DIARRETA BARRUKOA FÚTBOL SALA / ITXARTU MENDIGOIZALE TALDEA / GETXO RUGBY TALDEA / C.B. GETXO SASKIBALDIA / CLUB ATLETISMO GETXO / BIZKERRE FUTBOL TALDEA / BIZKENESKAK / FADURA IGERIKETA TALDEA / FADURA WATERPOLO TALDEA / GETXO FÚTBOL SALA / SAN NIKOLAS IKASTOLA / GETXOKO PILOTA ESKOLA / RASPAS ARRAUN ELKARTEA / PUNTA GALEA TXIRRINDULARI ELKARTEA / GETXO SURF TALDEA / GERDA GIMNASIA ELKARTEA / ARRAULTZALDEON FUTBOL TALDEA / GETXO HERRI KIROLAK ELKARTEA / ERROMO ESKUBALOI ELKARTEA - C.BALONMANO / GETXO PIRAGÜISMO TALDEA - GETXO KAYAKA / GETXO HOCKEY TALDEA / AIXERROTA BOLEIBOL TALDEA / GETXO ARRAUN ELKARTEA



[lehen]



GETXOKO UDAL LEJURITEGIA

[orain]



ASIERMENDIAGA

Iraganez doa denbora* beti / NEGURIKO EGUZKIALDE ETXEA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > txakurraz ahaztuta



Algorta 2007

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Soka jartzen diete askatasun truke eta kalean preso daude kutre-kutre; askatzaile baten zain egon behar dute... Behintzat, berba egiten jakingo balute!

Tabernetako zoru zuri, orain beltzen, errauts, zigarro eta puruen almatzen, azukre poltsatxoen jasotzaile zuzen, ahozapirik ere ez zaio faltatzen ta gero piztiarik ez dute onartzen!

Etixerakoa otzan, ehiztaria fuerte eta paseorako baldin bada, suerte! Zain egotea egun ez dago hain merke, atzean makina bat ikusita tente, denak aparkatuta pentsatu liteke: agian laster OTA jarriko diete.

* Doinua: *Itxaronaldia gero eta luzeagoa*

dokumentala > Getxo, bertoko euskaldun zaharren eskutik



Dokumentalaren grabazioa

Euskal Kulturaren Jardunaldien barruan, Getxo bertoko euskaldun zaharren eskutik erakutsiko duen dokumentala aurkeztuko du UK aldizkariak abenduaren 4an, 20:00etan Algortako Kasinoan. Aitor Gisasola eta Fredi Paya izan dira herriko euskaldun zaharren bizipenak bildu eta hauekin dokumental bat osatzaren arduradunak. Batetik, galtzar dagoen Getxoko euskaldun zaharren berbakera jaso eta ezagutzera eman nahi da. Bestetik, testigantzen eta argazkien bitartez, herriaren beraren iragana eta oraina hobeto ulertzeko aukera egongo da lan honi esker. Pasadizo, bizipen, aitortpenen eta ohituren berri izan ahal izango dute dokumentala ikusten dutenek. Materialak herriko gazteei gure betiko berbak eta ohiturak ezagutarazteko helburua dauka, hauek ezerezean gal ez daitezten. Dokumental hau Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin egin da. ◯

euskarashowa > euskaldunak eta etorkinak elkarrekin abesten



Iazko euskarashowa oso arrakastatsua izan zen

Pasa den urteko arrakasta ikusita, *Euskarashowa* karaoke interkulturala errepikatuko dute aurten Euskal Kulturaren Jardunaldien barruan. Bolibia, Ginea, Maroko eta Salbadorretik etorritako lagunak Getxoko euskaldunekin abestuko dute azaroaren 30ean arratsaldeko 7:30ean Algortako Kasinoan. Javi Onaindia, Koldo Iturbe, Itsaso Paia, Josu Loroño eta Patxi Lasa ere izango dira abeslarietako beste batzuk. Hauez gain, 40 ume baino gehiagok hartuko du parte. Liza Minelli, Madona eta Bolibiako hainbat kanta euskaratu dituzte eta hauek bikoteka zein taldeka abestuko dituzte, talde guztietan bertoko eta atzeritik etorritako lagunak egongo direlarik. Azken asteotako entsegu gogorren ostean, espektakulu bikaina eskainiko dutela aurreratu digute. Ikusi beharko da zelan moldatzen diren! ◯



BASALBO BASERRIA JATETXEA

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
280808 Getaria
Gipuzkoa





www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

euskal ezkontza > Getxoko lehenengo euskal ezkontza zibila



Ezkonberriak eta lagunak udaletxearen atarian

Urriaren 27an Getxoko udaletxean egin den lehenengo euskal ezkontza zibila ospatu zen. 80 bat pertsona bildu ziren bertara, Euskal Herriko jantziakaz dotore-dotore jantzita. Josu Loroño Musika Eskolako arduraduna eta Komunikazio zinegotzia izan zen Amaia eta Koldo ezkontzeaz arduratu zena. Ohiturari jarraituz, senarraren ama eta emaztearen aita izan ziren aitabixi eta amabitxia. Gainera, aitak oilar luma bategaz sinatu zituen sinatu beharrekoak. Oso giro polita sortu zuten ezkonberrien lagun eta senideek ezkontzan bertan eta honen ostean Berangon ospatu zuten bazkarian. Bazkal ostean musika, dantza eta ardo gozoa izan ziren nagusi. Garaiak aldatu dira eta ohitura zaharrak berriekin nahasteko beharra dugu; euskal ezkontza zibila dugu horren adibide garbia. Hala ere, badago euskaldunok inoiz aldatuko ez dugun ohitura: janari eta ardo gozoarekin lagundutako jaiak ospatzearena. Gora ezkon berriak! ○


berbalagunak > urtez urte hazten doan ekimena



Aurten Berbalagun ekimenean parte hartuko duten lagunak

Azaroaren 8an 2007-2008 Berbalagun taldearen aurkezpena egin zen Villamonteko Kultur Etxean. 160 lagun animatu dira aurten, iaz baino 40 gehiago. 18 berbalagun eta 7 gurasolagun taldeetan banatu dira parte-hartzaileak eta, hauetako askotan, lagun berrientzako tokia dago oraindik. Aurtengo taldekideak ezagutu, zaharrak agurtu eta aurreko ikasturtean burututako ekintzetan ateratako argazkiak ikusteko aukera izan zuten aurkezpenean. Aurreko urteetan ez bezala, begirale zerbitzua egongo da gurasolagunentzat. Gainera, asteburuetan lotu eta bide batez kirol apur bat egin nahi dutenentzat, berbalagun mendizale talde bat sortu da. Gehienak kafe bat hartzeko lotzen badira ere, badira palatan jolasteko edo paseotxo bat emateko elkartzen direnak, beti euskara ahoan dutela, jakina. Izena emateko, 619 935 542 telefonora deitu. ○

[erretratua]



"Gu zaharrak kantsa garezenen, gazteak ez du jakin gure ezer be", dio Juan Cardasek

Juan Cardas > Getxoko Nekazari Kooperatibako lehendakaria

Euskara ederrean berba egiten du Juan Cardasek, Getxoko Nekazari eta Abeltzain Kooperatibako lehendakariak, oraingo euskaldunekin ulertzeko zailtasunak dituela aitortu digun arren: "Ni ez naz ikastolako umea". 1951. urtean sortu zen inguruko nekazari eta abeltzainek aurrera ateratu duten kooperatiba: "Arten beste kooperatiba zahar bat eon zan trenbiden kontra. Hori txikerra zanez ein zan hau". Cardas jauna 1969an sartu zen sozio eta orain dela 12 urte izendatu zuten presidente. Larrañazubin dauka baserria eta hau aurrera ateratzen emon du bizitza. Landa guneen gainbehera dela eta, garai txarrak bizi izan ditu Kooperatibak, baina bazkideen laguntzarekin aurrera egin du; 150 sozio aktibo ditu gaur egun: "Hau ez dau diru eiteko; soziori behar dan modun lagunduteko baizik. Soziok jartzen dogu diru". Pena handiz berba egin digu nekazari eta abeltzainen etorkizunari buruz: "Guk 16 edo 18 orduz eiten dogu bear, ez 8 ordu obrerun modun. Gu zaharrak kantsa garezenen, gazteak ez du jakin gure ezer be". Hala ere, berak argi dauka: "nik defendituko dot hau hil arte!". Galtzufardo, lastotzole... ondo baino hobeto ezagutzen du baserritarren hizkuntza. Soldaduska garaiak eta politika kontuez ere berba egin digu: "Euskadin ez dau arreglorik. Politikotan ez dau onik; eurek kobratu behar dute gutxio. Mutil gaztek dagoz engañata". Etorkizuna nahiko beltz ikusten duen arren, gomendio batekin agurtu gaitu: "Zuek eman gerra, ez dau beste erremedio!". ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan Reprografía

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antigua Golf - Getxo
Tf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



Turismoa eta turista dirudunak

Getxoko ostatu eta hoteletan, hurrenez hurren, **3,5 eta 2,5 egun eman dituzte bisitariek**, eta hurrengo urtean **gurutze-ontzietako turistak 40.000** izan litezkeela iragarri dute arduradunek

Getxoko Udaletik zabaldu duten datu-multzoaren arabera, sasoiari dago udalerriko turismoa. Aurtengo udaldian bisitarien kopuruak gora egin du, ostatuak eta hotelak ia bete-beteta egon dira eta hurrengo urtean gurutzontzien kaira helduko diren turista aberatsen itsasontzi handiak aurtengo bikoitza izango dira.

Uda honetan ostatu eta 1 zein 4 izardun hoteletan batez besteko okupazioak gora egin du %82,43 eta %79,13, hurrenez hurren; ia bete-beteta egon direla ondorioztatu dute udal arduradunek. Ostera, maila ertaineko hotelek (2-3 izardunak) emaitza txarragoak eduki dituzte: betetze-maila %52,23 izan da. Turistek ostatu eta 3,5 egun pasa dituzte eta hoteletan ia 2,5 egun.

Bestalde, Kirol Portutik pasa diren belaontzi kopuruak ere %10,27 egin du gora (408 belaontzi) eta eskifaia-kideenak ere bai: %39,24 hazi da, guztira 1.696 tripulantzaille.

Amaitzeko, Turismo Informazioarako Guneetan arreta jaso duten bisitarien kopurua 27.622 izan da, kopuru polita udal arduradunen esanetan, aurreko urteagaz alderatuz gero %39 egin duelako gora. Igoera hori uda honetan martxan ipinitako txirriindulak doan mailegatzeko zerbitzu berriagaz lotu dute. Jakinarazi dutenez, getxotarrak eta, oro har, bizkaitarrak izan dira erabiltzaile gehienak. Alabaina, Espainiako estatutik etorritako bisitariak gutxiago izan dira aurtengo; katalanak gehia-



Gurutze-ontzi bat Getxoko kaian

go izan dira, %5 egin du gora kopuruak, eta atzeritik heldutako bisitariak ere %6 gehiago izan dira uda honetan.

Getxoko Turismo zinegotzi Aitor Soletaren iritziz, *"nabarmenezkoa da Getxoko izan duen gorakada aisialdi-turismoari dago-kionez. Halaber, oso ona da urteko lehen 9 hilabeteetan lortutako emaitza (%21,64ko igoeragaz), eta honen aurrean urte amaiera ere ona izango delakoan gaude"*.

«Aurtengo 20 gurutze-ontzi porturatu dira Getxon, hurrengo urtean bikoitza izatea espero dute»

Gurutze-ontzien kaia

Gurutze-ontzietarako Getxoko kaian aurtengo 20 turista-itsasontzi handi porturatu dira, eta arduradunek hurrengo urtean kopuru hori bikoiztuko dela uste dute. Api-

riletik urrira 22.972 turista dirudun ekarri dituzte Getxora gurutze-ontziok eta hurrengo urtean zenbateko hori %74 igo litezkeela aurreratu dute arduradunek.

Datuok ikusita, 2008an gurutze-ontzien denboraldia beste 3 hilabetez luzatzea erabaki dute. Halere, turista horien %30ek bakarrik hartzen du ibilaldi-bisitaldien eskaintza, armadoreen datuen arabera. ○

Datu batzuk

- Turimo buelgoetara 27.622 bisitari hurbildu dira.
- Atzeritarrak: %6 gehiago.
- Belaontziak: 408; 1.696 eskifaia-kide.
- Ostatu eta hotelak ia beteta.
- Gurutze-ontziak 20; 22.972 turista aberats.

Eguraldi alertei aurrea

zelan hartu ikasteko **kanpaina** ipini dute martxan



Getxoko kultur etxeetan edota udal liburutegietan lor daiteke CDa

Getxoko Babes Zibilak eguraldi alertei aurrea hartzeko neurriak zeintzuk diren ikasteko kanpaina ipini du martxan. Herritar guztiei zuzendutako egitasmoaren helburua, udalerriko Babes Zibileko zinegotzi Josu Loroñok azaldu duenez, hau da: *"Getxoko herritarrek esparru askotan dauden autobabeseko neurriak eta alerta horiek dakartzaten arriskuak ezagutzeko, batez ere kontuan hartuta Getxo kostaldeko udalerria izanik bertan enbatak, haizeteak eta euriteak sarri izaten direla"*. Horrenbestez, kanpainak hurrengo kontuak landuko ditu: eguraldi txararen balizko arriskuak zeintzuk diren ikastea, istripu askoren iturburu direlako. Arduradunek jakinarazi dutenez, zeharkako beste helburu batzuk ere baditu egitasmo honek, esaterako: familian autobabesaren kultura sustatzea, gerta litekeen edozein gorabehe-

raren aurrean zelan jokatu ikastea; aurrezaintzarako lagungarri diren jardunbide protokoloak ezagutzeko eta kalte pertsonal eta materialak gutxitzeko jarraibideak garatzea.

Horretarako, euriteen eta haizeteen arriskuak berri eman eta horietaz babesteko neurriak batzen dituen CD bat osatu du Udalak eta ikastetxeetan, kultur etxeetan, udal liburutegietan eta Udalaren webgunean lor daiteke. Udal arduradunek laburbildu dutenez, CD horretan, besteak beste, hurrengo aholkuak ematen dira: Portu Zaharretik, Arrigunagatik eta Azkorritik autoz ez ibiltzea euri jaso gogorak direnean; aldamioen azpitik edo zuhaitzen inguruetatik ez ibiltzea, garraio publikoa erabiltzea haize bortitza badabil; etxeko lorontziak barrura sartu... itsasontzietako erabiltzaileei begirako gomendioak ere batu dituzte. ○

AIBOAN "IBILGAILU" MEKANIKOAK IPINTZEKO PROIEKTUARI BERRIRO EHINGO DIO UDALAK

Aspaldiko eskaera bada, orain arte beste gune batzuk lehenetsi ditu Udalak (biztanle kopurua dela-eta). Ostera, oraintsu Aiboako auzunean "ibilgailu" (eskailera edota arrapala) mekanikoak ipintzeko egitasmoa berriro ere hartu du Udalak. Horretarako lehenengo pausua eman du: Garraio Partzuergoagaz harremanetan jarri da, eurak direlako metro geltokiaren inguruko arduradunak. Udal arduradunak lanen kostua bi erakundeen artean banatzeko eskatuko dio Partzuergoari; halere, eurek ezezkia emanda ere, udal arduradunak azaldu duenez, *"zelan edo halan lanak egingo ditugu udalaren esku dagoen lurzoruan"*. Hirigintza zinegotziak azaldu duenez, arbera asko iraungo duen proiektuaren lehenengo pausua da hau, *"lau urteotako legealdia iraun dezake"*.

TAMARISES ALOKATU DU HIGH TECH KATEAK

Hil hasieratik High Tech hotel kateak kudeatzen du Lazkano sendiak 1934 aldera sortu zuen Tamarises hotela. Ostera, jatetxeak jabeen esku jarraituko du, izan ere hotelaren eskaintza da kate atzeritarrari alokatu diotena, eta Esther Artolozaga da zuzendari berria. Alokatzailerien asmoa hotelari guztizko aurpegi-garbitzeta egitea da: "leku modernista, garbia eta erabilgarria ematea; zuri-beltzean atondua". Eskaintza berriak (wi-fi, hidromasaje dutxak...) jarriko badituzte ere, momentuz 3 izarretako hotela izaten jarraituko ei du.

ETORKINEK LANA BILATZEKO LANTEGIAK

Getxon bizi diren edo lan egiten duten etorkinei begirako lana aurkitzen lagutzeko lantegiak antolatu dituzte Behargintzak eta Udaleko Immigrazio Zerbitzuak. Lantegiok dagoeneko hasi dira eta otsailera arte iraungo dute.

Informazio gehiago: 94 466 01 40 edo behargintza@getxo.net

SAN INAZIO
AUTOESKOLA
1951n SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltzeritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1 • ALGORTA

Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberriak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Eneko Intxausti > lorazaina

“Ezinezkoa da parke batera sartzea, dena dago txakur-kakaz estalita”



Intxaustik 20 urte eman ditu dagoeneko herriko lorak eta zuhaitzak zaintzen

SEGEMA enpresarako egiten du behar Eneko Intxaustik. 40 bat lorazaineko enpresak 20 urte baino gehiago daroaz herriko lorategiak eta arbolak zaintzen, eta Intxausti bera ia hasiera-hasieratik bertoko langile. Bere ahotan Getxoko lorazainek, eta ziurrenik lanbide-kide askok, dituzten kexak, jakin-minak eta ardurak ezagutu ditugu.

—Neguan, lan gutxi?

—Ez horixe! Enpresak daroazen 20 urteotan ehunka arbola landatu ditugu, milaka inausketa egin ditugu... Orain neguan inausketa garaia hasiberri dugu, martxora arte kimuak ebakitzen jardungo dugu. Imajinatu: bakarrik Galeako pasealekuan 1.000 platanondo landatu dituzte. Horiek gazteak dira oraindik, landatu berriak, baina Aingeruaren etorbidean edota Basagoitin daudenak zaharrak dira, 40 urte baino gehiagokoak. Beraz, badaukagu lana! Esan nahiko nuke langile asko baserri girotik datozela, eta urteen zein jardutearen poderioz ikasi dugu lanbidea.

—Zergatik landatzen dira hiriguneetan hainbeste platanondo?

—Arbola oso gogorra da, baina era berean lan handia ematen duena; galde izeaiezu hori kale-garbitzailei... askok den-denak ebakiko lituzkete errotik! Asko lohitzten du eta urtero inausi behar dugu, baina gogorra eta hostotsua da, gerizpe freskoa ematen du udan.

—Kexatzeko arrazoiak baduzuela jakin dut.
—Bai, txakurren kontua; beldurgarria da! Erakundeak ahalegintzen dira zerbait egiten, baina ezinezkoa da. Ezinezkoa da parke batera sartzea, dena dago txakur-kakaz estalita! Zerbait egin dugu kontzientzia-eraketan: txakur-jabe baten bat ikusten duzu poltsatxo eskuan, baina ez asko. Leku batzuetan sartu ere ezin zara egin! Belarra ebakitzeko makinak gainera kaka guztia airetik sakabanatzen

dute, goitik behera lohitzten gara.

—Hori konpontzeko proposamenik?

—Proposamen salbatzailerik ez! Hori norbanakoaren erantzukizuna da. Udalak hamaika kanpaina egin ditu, baina... Jabeek izan behar dute arduratsukoak! Hori da gakoa, txakurrak txakur dira...

—Askok uste dute negua ez dela loratzen.

—Neguko lora asko daude, negu osoa irauten dutenak eta oso koloretsuak dira gainera: pentsamenduak, udaberri-lorak (*primula*), ziklamenak... Adibidez, Benantzioko biribilguneetan dauden andere-belarrak (*begonia*) kenduko ditugu orain eta beste batzuk landatu.

«Lorategi, arbola eta berdeguneei lotuta, Getxon bizitzea pribilejio bat da!»

—Noizbait ikusi dugu barazkiz egindako lorategiak... modernoegiak?

—Benantzion beti landatu ditugu aza more txiki batzuk, ez jangarriak. Baina diozun lorategi mota horiek arteari lotuago daude. Hori hemen ezinezkoa da, ez luke iraungo! Ez delako ezer ere errespetatzen.

—Ez ditugu zaintzen lorategiak.

—Denetarik dago. Txakurren gainera, jaieguneetan triskantza asko egoten da: jesarleku apurtuak, lorontzi irauliak... Badakizu, “botilatzarra” eta... Beharrezkoa da errespetu handiagoa, alor guztietan!

—Halere, honi lotuta, Getxon bizitzea luxua da.

—Zoragarria da! Galea, “Loroaren landa”, Arriluzeko pasealekua, Arrigunaga... inguru horiek pribilejioa dira! Hori ez duzu ikusiko udalerritik askotan! Eta berdeguneak: Lainomendi, Bizkerri... Gozamen handia da! Osetera, Donostiara joan behar dugu horrelakoen balioak konturatzeko! Ez genieke inbidia handiegirik izan behar! o

Arte Sortu Berrien Aretoa

laster zabalduko ditu ateak Areetako karpapean 60 sortzaile gazteren lanak ezagutzera emateko



Karpako ordutegia: 11:00-14 eta 17:00-21:30

Hil honetako azken egunean hasi eta gabonilaren lehenengo bi egunetan gozatuko du arte-zaleak Getxoartez. Arte sortu Berrien Aretoa sortzaile gazteei eta berriek eskaintzen die bere arreta eta bere lekua, aurtengoan 60 artistek aurkeztuko dute bere lana jendaurrean. Dagoeneko askok jakingo baduzue ere, “Euskal Herrian arte gazte eta berria sustatzeko eta bultzatzeko helburuagaz jaio zen Getxoarte, eta proposamenik gazteenen enakusleho izateko, askotan enakusleho egin arte anonimoko direnak, baina etorkizuneko proiektzioa badutenak”.

Margolanak, eskulturak, argazkiak, ikusentzunezko sormenak, marrazkiak, grabatuak, estetika erlaziozko zenbait lan, ekintzak eta

performanceak... ikusteko aukera izango du Areetako Geltoki plazako karpapea bisitatzen duenak. Izan ere, antolatzaileek adierazi duteenez, “Getxoarten mota guztietako aukera artistikoak sartzen dira, eta euskal arte-produkzio garai-kidearen onina eta etorkizuna enakusten dizkigu”.

Arte Sortu Berrien Aretora sartzeko sarreraren prezioa 2 eurokoa da (BBK gorriaz edota ikasle kametagaz, 1+1). Bestalde, ordutegi zabalera badauka Getxoartek: goizeko 11:00etatik eguerdiko 2:00etara eta arratsaldeko 5:00etatik 9:30era egongo dira ateak zabalik. Etorkizuneko euskal artearen proposamenak ezagutu gura dituenak, beraz, badaki nora jo!

Informazio gehiago: www.getxo.net

MUGAGABE ZIRKUITUAK BESTE ANTZERKI LAN BAT EMANGO DU GETXON

Getxoko Antzerki Eskolako “Simulacro Teatro” taldeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sortu dute Mugagabe zirkuitua. “Mugagabe. Arte guztia, guztientzat” Antzerki Profesional Paritarioa eta alor artistiko askotako Zirkuitua dira ekimen honen izen-abizenak, eta Bizkaiko antzerki konpainiak lana zabaltzeko helburua du. Horrez gainera, emakumeek dramaturgia eta zuzendaritza egiten duten lana sustatu eta lehenetsi nahi du Mugagabek. Dagoeneko Mugagabek Antzerkiola Imaginarioaren lan bat hurbildu du Getxora eta abenduaren 1ean Pakidermo taldearen “Una obra de radio” aurkeztuko du.

ETXE SORGINDUAK AURPEGIA GARBIA

Etxe Sorgindua edo *Etxe Larrosa* legez ezagutzen den eraikinak Chalet Olozaga (1898-1901) du benetako izena, indianoen egoitza izandakoa, estilo neobarrokakoa da. Urteak dira Udalak eraikina zaharberitzeko asmoa azaldu zuela, baina orain arte ez da ezer ere egin, zaharberitzeko trabak bazituelako eraikinak: fatxada hare-harrizkoa du, babestutako erakina da (Aldundiak berritzeko baimena eman du oraintsu)... Fatxada konpontzen hasiko dira orain, gero sarrera Basagoiti aldetik egingo diote... Bertan dauden udal bulegoak Gobela kiroldegian egongo dira lanak amaitu arte.

ANTZOKI BERRIAK PARKINGA EDUKIKO DU

Getxoko antzoki berriak San Nikolas plazaren azpian lurrazpiko aparkalekua edukiko du. Lekuen zenbateko bat herritarrentzat gordeko dute, gainontzekoak antzokira doazentzat izango dira. Aparkalekua egiteko, lehenengo eta behin lurrazpia zein materialez osatua dagoen ikertu beharko dute, horren arabera izango da lekuen kopurua; lanak 2008ko apirilaren hasiko dira.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • **ALGORTA**

Iñaki Legarreta eta Bene Madariaga > Leioako kanposantuko lurperatzaileak

“Psikologikoki txarto dauden hildakoen senideei laguntza ere ematen diegu”

Azaroaren 1ean Domusantu eguna izan zenez, Iñaki Legarreta eta Bene Madariaga Leioako kanposantuko langileakaz gure hildakoen inguruko hizketalditxo bat edukitzea otu zitzaigun. Iñakik 12 urte daramatza bertan lan egiten eta Benek bost baino gehiago. Aitortu digutenez, leioarrak ez izateak momentu hain latzetan herritarrekin distantziak gordetzea ahalbidetzen du. Hildakoaren senideei erraztasunak ematea da euren betebeharra.



Argazkian, Iñaki Legarreta eta Bene Madariaga

—Hildakoenganako ohiturak aldatu ala dira?

—Jendearen etortzea, bai, aldatu egin da. Gaur egun urtean zehar jende gutxiago dator eta gehien bat helduak dira hona hurbiltzen direnak. Gazteak momentuan etortzen dira edota gehien jota, lehenengo biz-pahiru hilabeteetan. Bestalde, errausketak ugaritu egin direla igartzen da nahiz eta gero horiek kanposantuan lurperatu.

—Zer iruditzen zaizue hildakoen inguruan egiten diren erritualak?

—Erljio aldetik hartuta, ez dago ia erritualik. Guk oso bereiztuta daukagu eliza eta hilerria. Azken finean guk udaletxeko beste saila bat osatzen dugu; udal langileak baino ez gara.

Errito soziala da dagoena: domusantuko egunean kanposantura etortzea, loreak ekartzea... Hori guztia jendeak elkar ikusteko egiten da, baina erlijio aldetik ez dugu gauza handirik ikusten: ohitura besterik ez da.

—Lehen aipatu duzue gero eta errausketak gehiago daudela...

—Bai, igartzen da. Sasoiak daude, hala ere, baina orokorrean ugaritu dira. Gorputza erretzeak bere lekua hartu du: Bizkaian %30 inguruk erabakitzen du gorputza erretzea. Argi dago jendeak kendu duela erlijio alde-

tik zeukan karga hura, praktikoagoa eta osuntsuagoa da. Gero eta labe gehiago daude eta errausketaren prezioa asko murriztu da.

—Jendeak zelako irudia dauka lurperatzaile lanari buruz?

—Gizarte udaleko langileak garena ohar-tzea lortu dugula uste dugu. Lurperatzailearen aspaldiko irudi mitiko hurarekin (herriko gizajoa, tipo erdi-mozkortua, pertsona iluna, tetrikoa...) amaitzea lortu dugu. Hilerriari parke itxura emateak ere tragikotasun hori kendu dio. ○

Lamiakoko araztegia

Auzotarrak proiektuaren kontra sutsuki azaldu dira eragin ditzakeen ondorioak direla eta



Auzokideak kezkatuta dabilta araztegiarekin

Hedabide ezberdinen arabera, urte bukaeran araztegi berri bat egiteko lanak hasiko dituzte Lamiakon. Araztegi berria 2010. urtean hasiko da funtzionamenduan, eskuinaldeako herriarrak (322.000 bat) asetuko ditu, 91.600 metro koadro beteko du eta 90 miloi euroko aurrekontua dauka.

Erankudeek araztegia ingurumenarekiko begirune handia egingo dela hitz eman dute, erreferentzia bat. Horretarako, punta-puntako teknologia erabiliko ei dute. Horrez gain, Lamiakoko ditxo pasealeku eta bidegorriak edukiko dituen guner berde bihurtuko dute eta alboan enpresa-parke bat edukiko du.

Lamiakoko auzotarrak berriz, araztegiak

ondorio txar ugari eragingo dituelako ustean haserre daude. Auzotarren Elkarteak Lamiako auzoa berriro ere “*bazterkerian galtzeko saiakeru hau*” salatu egin du, araztegiak usain txarrak eta zarata eragingo dituelako.

Proiektuaren kontra daudenen esanetan, “*toxikoa, kinasduna, sukioia eta lebergarria den gasa isuriko du, hidrogeno sulfuroa, hain zuzen*”. Aldi berean, erakundeen (udaletxeak zein diputazioak) jarrera salatu dute; haien ustetan gai honen inguruan isiltasuna izan da nagusi eta ez dituzte auzokideak behar bezala informatu.

Azkenik, “*etxebizitzetatik oso hurbil egongo da araztegia eta horregatik lege bat baino gehiago urratuko ditu*”, gaineratu du elkarteak. ○

ARTATZAKO RADARRA: ABIADURA MURRIZTU BAI, ISTRIPUAK EZ HAINBESTE

Artatzako radarrak 2006. urtean 29.456 isun ezarri bazituen, aurtengo ekainera arte 858 jarri ditu. Horrenbestez, Leioako tunel horretatik doazen gidariak 60 km orduko abiadurara murriztea lortu du radarrak. Ez ordea istripuen kopurua. Auto-istripuen zenbatekoa gutxitu bada ere, beherakada hori ez da oso nabaria. Horren adibide da, 2006 urteko erdialdera arte 185 istripu izan zirela eta 2007.eko erdialdera arte berriz, 120 erregistratu direla.

MUSIKA ESTILO EZBERDINEN NAHASKETA, FUSSION PROJECT

Azaroaren 30ean Fussion Project musika taldeak Auditoriumean joko du. Musika estilo desberdinen nahasketa da hauek duten helburua, baita lortu ere. Zer ikusirik ez duten erritmo eta melodiak uztartzen dituzte oso bertsio pertsonalak eskainiz. Obra, melodia, erritmo eta armonia aniztasun aberatsa da Fussion Project taldearena. Ikuskizuna 20:30ean hasiko da eta sarrerak 10 euro balio du.

KONTSEILUAK LEIOA BERRIKO HIRU AUTO BANATU DITU

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak antolatzen duen *Euskal Tonbolaren* bitartez Leioa Berrik luzatutako hiru kotxe banatu ditu jada. Donostiar bat, zarautzar bat eta iruindar bat dira hiru saridunak eta Renault Twingo bana irabazi dute. Hilabete honetan izan da azkeneko zozketa eta hurrengo urteari begira, antzeko zerbait prestatu gura du Kontseiluak, hau da, beste kotxe batzuk zozketatzea. Beraz, adi egon!

Informazio gehiago: www.kontseilua.org

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

ERROTULOAK

BEST

**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK**
egiten ditugu

e-mail: hirstab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

[erandio]

Garikoitz Gerez > mahastietako langilea

“Hamar lagunen artean **500 kiloko 15 kutxa** betetzen ditugu **egunero**”



Gari Gerez mahats artean

Txakolina, muztioa, ardo gorria, ardo beltza... guztiok dastatu ditugun edariak izan arren, gitxi dakigu horrelakoak ekoizteko prozesuaz. Jadanik aurtengo uzta jazo da eta hartutako guztia urtarila aldera salmentan jarriko da. Ekoizpen luze honetako nondik norakoak ezagutu nahian, Garikoitz Gerez Gernikan dagoen mahasti bateko Erandio langileagaz hitz egin dugu.

Lehenik eta behin, egindako eguraldi kaxkarraren erruz aurtengo uzta urria izan dela aurreratu digu Gari. “*Trailean jaso beharrean, ia hilabete beranduago jaso dugu uzta; heldu barik zegoen. Eta horregatik kilo mordo bota behar izan dugu, lizuna atera baitzaio*”. Kalitate aldetik, berriz, aurtengo ona izango dela adierazi digu mahastiko langileak.

Erandiozarrak azaldu duenez, lan gorra da mahastikoa, “*hamar lagunen artean 15 kiloko 500 kutxa betetzen ditugu egunero*”, esan du langileak. Hori dela eta, mahastietan behar egiten duten langile gehie-

nak etorkinak direla azpimarratu du, “*bertoko gazteek beste edozertan behar egitea nahiago dute*”.

Gari txakolina ekoizten duen enpresa batean egiten du behar, eta kalkulatu duenez, urtean 200.000 litro txakolin inguru ekoizten dute, nahiz eta aurten gitxiago egingo duten. 3 motatako txakolina egiten dute: “*Urteko txakolina urte berean kontsumitu behar den txakolina da; bestetik, upelean zazpi hilabetez uzten dena daukagu, txakolin ondua, alegia; eta azkenik, kalitate onenekoa*”.

«Ia hilabete bat beranduago jaso dugu uzta, heldu barik zegoen eta»

200.000 litro txakolin asko badirudi ere, ekoiztu baino lehenago salduta dutela adierazi du erandiozarrak, erosle finkoak dituzte eta berririk ezin dela sartu. “*Bizkaia osoan saltzen dugu: Bilbon, Igorren, Mundakan, Santurtzin... Algortako Portu Zaharrean ere asko saltzen dugu*”. ○

Paratene nekazal ostatua

Inguruan behar egiten duten **langileak dira** ostatura **gehien joaten direnak**



Erandio Goikoan dago Paratene

Badira hogei urte baino gehiago Paratene nekazal ostatuak atek ireki zituenetik. Erandio Goikoan kokatzen den etxe honek ostatu hartzea eta gosaria eskaintzen du.

Federico Montosa Parateneko arduradunak azaldu duenez, inguru honetan ez dabil turista askorik: “*Egia esan oso turista gitxi datoz inguru honetara; ostatura datozen gehienak langileak izaten dira. Ingeniariak, medikuak, abokatuak eta abar ere badatoz*”. Horrez gain, ezkontzak eta lehenengo jaunartzea ospatzera ere badatozela argitu digu Federicok.

Hala ere, zenbait turista hona hurbiltzera animatzen dira; Bartzelonatik datoz nagusiki, nahiz eta madrildarrak ere etorri. “*Batzuetan ingelesak, frantsesak eta horrelakoak datoz, bai-*

na kasu hauek arnaro samarnak dira”.

Erakargarri turistikoek galdetuta, erakargarri horiek nola saldu norberaren gauza dela iritzi dio nekazal ostatuko jabeak. “*Motorni saltzeko hitz politak esan dituzaket: inguru naturala oso ederra dela, zaldien irrintziak ez esna zaitezkeela... baina nik ez dut gustuko horrelakoak esatea*”. Federicoren arabera bezero bakoitzak gauza ezberdinak bilatzen dituen heinean, berari dagokion eskaintza eman behar zaio.

Euskal gastronomiari ere aparteko garrantzia ematen dio Paratene etxeko arduradunak. Bere esanetan, Euskal Herriko ohiko jakiak dastatzeko aukera ugari daude Erandio inguruan. ○

Harremantarako: 94 471 00 05

500 SINADURA TXURRUKA BERRESKURATZEKO ASMOZ

Erandio langun talde batek Txurruka pasealekua berreskuratzeko asmoz 500 sinadura aurkeztu ditu udaletxean. Erandio pasealekua Tomas Ruiz de Velasco ontziolak okupatu zuen 1947. urtean orduko administrazioaren baimenagaz. Harrezkero aldaketa ugari izan dira, eta gaur egun Murueta ontziolak betetzen duen arren Portuetako Autoritatearen esku dago. Ontziolak ez du pasealekua erabiltzen eta horregatik, herriari kendu zitzaion espazio hori herriari bueltatzea da 500 erandiozarren helbura. Txurruka, kaiko pasealekuaren albotik doa nahiz eta askok jakin ez.

PASEALEKU BATEK LOTUKO DITU ALTZAGA ETA ASTRABUDUA

Altzaga eta Astrabudua auzoak lotuko dituen ibilbidea gauzatzeko egitasmoa prestatu du Erandio Udalak. Ategorri institutuaren atzealdean hasi eta Tartanga kaleko pasabidera doan bidea izango da ibilbidearen lehenengo urratsa. Trenbidearen eta industria poligonoen artean doan 500 metroko bidezidorra atondu eta zolatzeko lanak datorren urtearen amaieran edo 2009ko lehenengo hilabeteetan hasiko dituzte. Horren ondoren, gainerako pasabidetik Iparralde auzoraino luzatuko da ibilbidea, Axpeko industrialdera jaisteko xedeagaz. Handik Astrabuduaraino jarraituko du. Egitasmo honen osagarri gisa, Tartanga kaleko espaloiak konpondu eta Ibaizabalen alboan dagoen errepideko bidegurutzea ere egokituko dute.

LUTXANAKO METRO GELTOKIAN IGOGAILUAK JARRIKO DITUZTE

Lutxanako metro geltokiak igogailuak izango ditu mugikortasun urriko pertsonen zailtasunak gaindi ditzaten.

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

ERANDION
berbalagun

Ikasten dabilzanekin berba egiteko...
...ordu bete astean, bai?
Euskalduna bazara, emaezu laguntza; eskertuko dizute-ta!

ANIMA ZAITEZ!!

Tel.: 94 467 27 81 (16.00etatik aurrera. Astehenerdik ostalagunera)
658 70 93 32 (Leire)
e-maila: berbalaguna@gmail.com
helbide postala: San Jeronimo 14 behea • Alzaga

ERANDIO ELIZATEKO LEIALA

AYUNTAMIENTO de la Antigua de Erandio

ERANDIO ELIZATEKO LEIALA

AYUNTAMIENTO de la Antigua de Erandio

ERANDIO ELIZATEKO LEIALA

AYUNTAMIENTO de la Antigua de Erandio

ERANDIO ELIZATEKO LEIALA

AYUNTAMIENTO de la Antigua de Erandio

OLENTZEROARI BURUZKO MARRAZKI LEHIAKETA ANTOLATU DU UDALAK

Sopelako Udaleko Kultur Arloak 8 eta 12 urte bitarteko umeentzako marrazki lehiaketa antolatu du. Urtero bezala, irudien gaiak Olentzero eta Sopela izango dira. Marrazkiaren tamaina gutxienez, DIN A4 edo folio batekoa izan behar da halaberharrez; hortik aurrera norberaren irudimena dago. Marrazki irabazlea Udalaren gabonetako postala egiteko eta Gabon gaueko ekitaldiak iragartzeko erabiliko da. Era berean, lehenengo hiru saridunek "bertako produktu bana" jasoko dute. Lanak udaletxeko sarreran aurkeztu beharko dira abenduaren 7a baino lehen. Hilabete horretan zehar aurkeztutako marrazkien erakusketa egingo da. Sari emanaldia, berriz, abenduaren 30ean egingo dute.

TAI CHI IKASTAROAK ORDUTEGI BERRIAK DAUZKA

Negua hasi ez bada ere, Sopelako Tai Chi taldea neguko ordutegira egokitu da. Ikastaroak martitzenetan eta eguenetan izango dira goizez eta arratsaldean. Ordutegiak ondoko hauek dira: 9:00-10:00; 19:00-20:00; 20:00-21:00; 21:00-22:00. Goizeko ikastaroa Abasolo kiroldegiko igerilekuan burutuko da, eta arratsaldekoa berriz, Urko kiroldegiko saskibaloi kantxaren atzekaldean.

CAUTERETSERA ESKIATZERA JOATEKO TXANGOAK

Sopelako Udalak datorren abenduaren 15an Cauteretsera (Frantziako Pirineoak) eskiatzera joateko bidaia antolatu du. Eguna bateko irteera izango da eta edozein udalerritako lagunek parte har dezakete.

Informazio gehiago: 94 406 55 19

Euskararen astea

Hizkuntza herrian bultzatu nahian ekintzez beteriko astea datorkigu



Ander deuna eguna ere ospatuko da azaroaren 30ean

Azaroaren 26tik abenduaren 2ra Euskararen Astea ospatuko da. Horrela, 26tik 28ra Euskarazko Produktuen Txokoa antolatuko da Erakusketa Aretoan.

Eguenean berriz, hilak 29, "Euskal Herria Bizikletaz: Nire Lehen Bidaia" hitzaldia eskainiko da Hall Kulturalean arratsaldeko 19:30ean.

Azaroaren 30ean, barikua, Ander Deuna Eguna ospatuko da. Goizeko 11:00etan kalejira batekin abiatuko da eguna. Barinatxe txistu taldeak Udaletxetik Ander Deuna Baselizarako ibilbidea burutuko du.

Meza ostean, ohorezko aurrekua egingo da erromeriaz lagundurik. 20:00etatik aurrera Triki Bertso Poteoa hasiko da herriko tabernetatik.

Gazteentzako ekintzakaz hasiko da abendua. Horrela hilaren 1ean, tailerrak, puzgarriak eta karaokea egongo da udal frontoian goizez eta arratsaldean.

Euskararen Asteari amaiera emateko Munarrikolanda Mendi Taldeak eta Aitxu! Euskara Taldeak abenduaren 2an herriko txokoak eta inguruak ezagutzeko mendi martxa antolatu dute. ○

LAIKAK
Taberna

Bentaxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

ARTELAN IKASTAROA ETA HITZALDIA HELDUENTZAT

Ekintza bi egongo dira abenduan helduentzat. Alde batetik, azaroaren 28an hasita eta 2008ko ekainaren 4a arte, artelan ikastaroa izango da asteazkeneo 10:00etatik 12:00etara Santa Anako Kultur Etxean. Paricia Rapssonek emango du eta materiala ikasle bakoitzak eraman beharko du. Bestetik, "Productos milagro y ventas especiales" hitzaldia antolatu dute azaroaren 30erako. Azken hau, arratsaldeko 5:30ean izango da Nagusien Etxean.

GAZTEENTZAKO TAILER ETA IKASTAROAK

Ekintzez gainezka dator abendurako programazioa Berangoko gazteentzat. Ludotekan psikomotritateak, mahai jokoko eta jolas dinamikoak izango dira astean zehar. Ostiraletan Ludoklubean antolatuko diren tailerretan parte hartu ahal izango dute 10-12 urte bitarteko umeei. Bestalde, azaroan hasita eta urtarrilaren 4a arte, "Brotxa Lodia" ikastaroa eskainiko da, karikatuta eta irudi tankerako irudiak egiten ikasi eta aldi berean Gaztelekuko hormak bere diseinuekin margotzeko. Abenduaren 1etik otsailaren 9a arte, "Tusor Kinekues" tailerra izango da larunbatero 11:30etik 13:00era. Tarte eta egun berean, "Dantza moderna" irakatsiko dute 10:30etik 11:30era.



Euskararen eguna

Abenduaren 3an ospatuko da, **Xabierko Frantzisko** deunaren egunean



Olentzerori gutun lehiaketa ere antolatu dute

Eusko Ikaskuntzari zor dio bere jatorria abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Nazioarteko Egunak. Berangoko Udalak programa berezia prestatu du ospakizun hau gogorarazteko. Alde batetik, Euskarazko Produktuen Katalogoan oinarritutako erakusketa interaktiboa egingo da abenduaren 2an udal pilotalekuan, goizeko 11etatik arratsaldeko 3etara. Musikan, literaturan, ikus-entzunezkoetan eta teknologia berrietan agertu diren euskarazko azken produktuak ezagutzeko aukera egongo da honetan. Bestetik, txotxongilo eta ipuin-kontalari emanaldiak egongo dira Kixka eta Apika tal-

deen eskutik. Abenduaren 1ean eta 2an izango dira, hurrenez-hurren, 18:30ean Berangoetako Kultur Etxean.

Honez gain, Olentzerori Gutuna Literatura Lehiaketaren X. edizioa antolatu dute 1995 eta 2000. urteen artean jaiotako umeentzat. Idazlanak abenduaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dira Berangoetako Kultur Etxean. Idazlanek orrialde bateko luzera izan beharko dute eta egilearen izen-abizenak, adina eta telefonoarekin batera aurkeztu beharko dira. Sari banaketa urtarrilaren 4an izango da eta parte hartzaile guztiek izango dute opari bat. ○

Garikoitz Gorostiaga > errezitaldi poetiko-musikalak

"Ahalik eta modu atseginenean, olerkigintza hurbildu nahi diogu herriari"



Argazkian, Garikoitz Gorostiaga

Gorlizko Lehenengo Errezitaldi Poetiko-musikalak ospatzen ari dira erakustaretoan azaroko ostiraletan. Garikoitz Gorostiaga liburutegiko arduraduna izan da ekimen honen bultzatzaile nagusia. Jendeak ondo erantzuten badu, datorren urtean errepikatzeke asmoa daukatela aurreratu digu.

—Nola sortu zen ideia?

—Aurreko urteetan antzeko ekintzak egin ditugu, errezitaldi solteak. Bestalde, Udalak liburutegiarekin batera, olerki liburu bat argitaratu zuen 2006an, *Isasertzean* izena duena. Honetan herriko jendeak hartu du parte. Genero hau berpizteko asmoz, egitarau osatuago bat egiten saiatu gara aurretan.

—Ze irizpideren arabera egin duzue aukeraketa?

—Alde batetik, Juan Ramon Mankuso (azararen 30ean) aukeratu dugu, euskarazko olerkigintzan eskarmentu handia duela eta argi geneukan euskaraz zerbait sartu behar genuela. Bestalde, Orphenica Lyra tal-

dea ekartzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dugu. Lehenengo bi saioetako olerkigileak, Isabel Gezuraga eta Luci Sepulvedaren laguntzarekin aukeratu ditugu. Izan dugun aurrekontua kontuan hartuta, egitarau txukuna gelditu da.

«Euskaraz, Juan Ramon Mankuso izango da azaroaren 30ean»

—Eta honekin guztiarekin musikaren laguntza.

—Bai, errezitaldi poetiko-musikalak dira. Biolina, pianoa eta beste musika tresna batzuen laguntza izango dute. Helburua jendea olerkigintza ahalik eta modu atseginenean hurbiltzea da. Errezitaldiak bukatutakoan, luntxa egongo da. Idazleekin hitz egiteko aukera izango dute entzuleek. Aurreko urteetan jendea iritziak eta sentipenak konpartitzeko gogoekin gelditu dela ikusi dugu eta horretarako aukera emango du luntxak. ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Teléfono: 946 761 128

AJURIA
TABERNA

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



ZALDI PROBAK URDULIZEN ABENDUAREN 7TIK 11RA

Zaldi probak izango dira Urdulizen abenduaren 7tik 11ra. Izena ematea eta zozketa Urdulizko Udaletxean izango da, azaroaren 25ean, 12:30ean. Izena ematerakoan microchip zenbakia aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek eta ezin izango du parte hartu microchip gabeko animaliarik. Joko eta Kirolen Bizkaiko Federakundeak kontrolatuko du dena. Antolatzaileek parte-hartzaileekin talde ezberdinak egin eta horiekin zozketa egiteko eskubidea izango dute. Irabazleak, 700 euro, Burusia eta Garaikurra eramango ditu etxera. Lehengo 10 sailkatuek jasoko dute saria. Euskadiko eta Bizkaiko txapelketarako puntuagarriak izango dira Urdulizen lortutako markak.

Informazio gehiago: 94 676 20 61

GORLIZKO LUDOTEKA MARTXAN DAGO

Azaroaren 6an jarri zuten martxan Gorlizko Kultur Etxeko ludoteka zerbitzua. Honetan 3-12 urte bitarteko umeei hartu ahal izango dute parte, bi ordutegi ezberdinetan: 3tik 7ra 17:00etatik-18:00etara; 7tik 12ra 18:00etatik 19:00etara. Doako zerbitzua da eta talde bakoitzean 15 ume onartuko dira gehienez. Jolasak eta birziklapena edo globoflexia bezalako tailerrak izango dira, beste gauza askoren artean. Lehenengo aldiz hurbiltzen diren umeei inskripzio orria bete beharko dute. Bestalde, azaroaren 30ean *Kuko, Truko eta Bolenwailer* pailazoan emanaldia izango da pilotalekuan, euskararen eguna dela eta.

BARRIKA

Zahar-etxearen historia biltzen duen liburua kalean



Barrikako zahar-etxea

Luis Mari del Bustok Barrikako zahar-etxearen historia biltzen duen liburua kale-ratu berri du *“Noventa años de servicio 1914-2004”* izenpean. Itsasgizon ohia idazle sutsua da gaur egun eta bertan lan egin duten gizon-emakume guztiak omendu nahi izan ditu lan honekin. *“Asmo handi gabeko liburu malenkoniatsua”* dela azpimarratu nahi izan du.

Hiru urte eman ditu Bustok udal artxibategian, zahar-etxearen dokumentuetan eta hemerrotekan ikertzen, liburua osatzeko

behar izan duen informazio guztia bildu ahal izateko. 1914. urtean hasten da kontakizuna, Santa Anaren karitateko ahizpek eraikina martxan jarri zutenean. Barrika, Plentzia, Sopela, Gorliz eta Urdulizko 19 gaixo hartu zituen zahar-etxeak urte horietan. Garai txarrak bizi izan ditu, Gerra Zibila edo gerra ostea, besteak beste. Preso politikoen ostatu eta talde nazionalaren zaurituen erietxe bezala erabili zen gerra garaian. Gaur egun, 97 lagun biltzen dituen egoitza ederra da. ○

Aza. 25 - abe. 10

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

URDULIZ

► **Euskarazko Produktuen Txokoa.** Azaroak 30, barikua. 16:00-20:30.

SOPELA

► **Euskarazko Produktuen Txokoa.** Hall kulturala. Azaroaren 26tik 28ra.

GETXO

► **Getxoarte 2007.** Arte sortu berrien aretoa. Azaroaren 30etik abenduaren 2ra. Sarrera: 2 euro.

► **Fotorreto 2007: Antzinaro argazkiak.** Areetako geltoki plazan. Abenduaren 7tik 16ra.

LEIOA

► **Bosteko X. edizioa.** Bonifacio Alonso, Juan Luis Goenaga, Fernando Biderbost. Erakusketa gela. Azaroaren 27ra arte.

MUSIKA

GORLIZ

► **I. Errezitaldi poetiko-musikalak.** Juan Ramon Mankuso. Erakusgela. Azaroak 30. 20:00.

► **Erromeria Iruxur taldearekin.** Eliza plaza. Abenduak 8. 20:30.

ERANDIO

► **Organo kontzertua.** Andra Mari eliza. Azaroak 30, barikua. 20:00.

LEIOA

► **Fussion Project.** Auditorium. Azaroak 30. 20:30. Sarrera: 10 euro.

ZINEMA

LEMOIZ

► **Ikusi-makusi.**



► **Ikuskizun familiarra**

“Niña Frida”

Emakume heldua den Frida Kalkok berak bizitako iraganeko uneak gogoratzen ditu: mundura etorri zenekoa, sei urteko edukitako gaixotasuna, aitak zuri-beltzeko argazkiak koloretzatzen irakasteko izan zuen pazientzia... Izan zituen lagunak ere gogoratzen ditu, umetako etsipenak, beti jendez inguratuta egon arren hazten zihoala bizi izan zuen bakardadea, 18 urteko izan zuen izugarriko ezbeharrak... Baina horretatik guztitik bere bizitako gogo onenagaz geratzen da, aurrera etengabe egiteko asmoagaz, batez ere, egunetik egunera bere burua gainditzeko. Obra Karrik Danza Teatro taldeak antzetzten du eta Rosa Díaz eta Cristina D. Silveira dira zuzendariak. Sarrerak 4 euro balio du.

• **Non:** Kultur Leioa • **Noiz:** Abenduak 1 • **Ordua:** 18:00

Andraka. Azaroak 30. 19:30.

22:00. Sarrera: 2,90 euro.

GETXO

► **Zinebi.** Getxo Antzokia. Azaroak 26 eta 27, astelehena eta martitzena. 19:30.
► **Diario de un escándalo.** Getxo Antzokia. Azaroak 28, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.
► **Una mirada en la oscuridad.** Getxo Antzokia. Azaroak 30, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.
► **Apocalypso.** Getxo Antzokia. Abenduak 7, barikua.

LEIOA

► **River Queen.** Kultur Leioa. Azaroak 27, martitzena. 20:00. Sarrera: 3 euro.
► **Ghost in The Shell.** Leioako Campuseko areto nagusia. Azaroak 29. 12:00.
► **Nazis: Un aviso de la historia - parte 2.** Udondo gaztetxea. Azaroak 29. 19:30.
► **No acepto! 1980-1990. Diez años de hardcore, punk, ira y caos.** Arte

Ederretako fakultatea. Abenduak 13. 11:00.

GORLIZ

► **El Mago de Oz.** Erakusgela. Azaroak 25. 17:00.

ANTZERKIA

LEIOA

► **El cuento de la lechera.** Factoria Teatro. Auditorium. Azaroak 25. 12:00. Sarrera: 4 euro.

GETXO

► **Una hora de teatro.** Pakidermo. Getxo Antzokia. Abenduak 1, zapatua. 20:00. Sarrera: 6 euro.

BESTEAK

ERANDIO

► **Musika tailerra.** Lutxanako eskolak. Azaroaren 26tik 30ra. 19:00.
► **Emakumeen sexu fantasiak eta desioak.** Gazte bulegoa. Udaletxe ohia. Azaroak 30. Sarrera: 2/3 euro.
► **Match que poteo + Haga usted lo que pueda.** Lutxanako eskolak. Azaroak 30, barikua. 22:00.

SOPELA

► **Hitzaldia: “Euskal Herria bizikletaz: nire lehen bidaia”.** Hall kulturala. Azaroak 29, eguena. 19:30.
► **Txangoa: Ander Deuna Baselizara.** Udaletxe enparantza. Azaroak 30, barikua. 11:00.

BARRIKA

► **Umeentzako tailerra eta pailazoak.** Abenduak 1. Udaletxea.

GORLIZ

► **Kuko, Truko eta Bolenwailer pailazoak.** Pilotalekua. Azaroak 30, barikua. 19:00.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Lore margotuak

Lagun misteriotsu batek UK-ko erredakziora bidalitako argazkiak ekarri ditugu orrialdeotara. Grafitero on bezala, ez digu bere identitatea argitu eta argazki guztiak Fluor ezizenaz sinatu ditu. Getxon eta inguruetan ikus daitezke margotutako lore hauek; katoi ilunetan, horma zikinetan... Leku hilak berpizteko kapazak dira artistak. Oraingoan, spraya izan da bere arma, baina badaude pintzela erabiltzea nahiago dutenak. Berrero ere, artisten topaleku dira herriko bazterrak.

Argazkiak: **Fluor**





Turistak

Manuel Vazquez

Zuetako askok Getxophoto jaialdian ikusiko zenuten irudi enigmatiko hau, izan ere, hilabete batez Algortako metro geltokian egon da han ikusgai. Turisten jokabide fotografiko konpultsiboaren adibide ederra.

[berbetan]

Txiki-txikitatik argi zeukan Roge Blascok bere etorkizuna kazetaritzan zegoela. 1980an, Euskal Herriko Unibertsitatean ikasten zebilela, *Muskaria* aldizkaria sortu zuen, musikarekiko zuen zaletasunak bultzatuta. Handik lau urtera, Radio Euskadiko *Levando Anclas* saioarekin hasi zen, datorren urteko martxoan 24 urte beteko dituena. Honez gain, ETBko *Doctor Livingstone, supongo* eta TVE 2ko *Terra a la vista* saioetan parte hartu du. Gaur egun *La casa de la palabra* saioa zuzentzen du astelehenetik ostiralera. Bere lana maite du eta harro bezain zoriontsu egin digu berba honetaz. Irratian ez dagoenean, Getxoko kostaldean erlaxatzea gustuko du. Andra Mariko landetan hasi eta hezi da eta, beharrezkoa izanez gero, hauen alde borrokatzeko prest dago.

Roge Blasco

Andra Mariko bidaiaria

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—ETBko “Doctor Livingstone, supongo” eta TVEtik pasa ostean, Radio Euskadin sartu zinen “Levando Anclas” saioarekin. 1997tik, “La casa de la palabra” zuzentzen duzu. Zorte kontua ala ideia onak?

—Nik uste dut, batez ere, nire kazetaritzarako zaletasunagatik izan dela. Hamar urte nituenean aldizkariak egiten nituen etxean eta nire lehengusu eta neba-arreben artean banatzen nituen. Lanbidea maite dut. Zorte kontua... izan daiteke, baina nik bilatu dut dena. 1979an, karrerako 3. mailan nengoe-la, komunikabidez komunikabide joan nintzen lan bila, baina ez ninduten inon hartu. Orduan, Oskar Amezaga eta Pedro Mari Azkorra lagunekin batu eta nire lana asmatzea erabaki nuen. *Muskaria* aldizkaria sortu genuen, euskal rockaren ingurukoa eta han ibili ginen 7 urtez. Proiektu berritzailea izan zen, izan ere, garai hartan musikari buruzko aldizkari gutxi zeuden Euskal Herrian. JMC Radio, Getxoko lehen irrati

librean ere parte hartu nuen.

—Eta gero Radio Euskadi...

—Bai, JMC irratian eman nituen bi urteei esker, Felix Linaresek Radio Popularren bost saio egiteko aukera eman zidan. Ezagutzen zuen esataririk txarrena nintzela esan zidan, baina musikari buruz asko nekienez jarraitzeko aukera eman ere. Handik hamar hilabetera, Radio Euskadin hasi nintzen.

martxan jarri eta, benetako bokazioa baldin baduzu, borrokatu egin behar da. Lana ematen ez badizute asmatu egin behar duzu, guk *Muskaria*ekin egin genuen bezala. Kazetaritza bokaziozko lanbidea da erabat. Oso gogorra da; ez da ondo ordaintzen eta gogo handia jarri behar da egiten duzunean. —24 urte “Levando Anclas” saioarekin. Ez al zara inoiz aspertu?


“Gura dudana egiteaz bizi ahal izatea luxua da niretzat ”

Musikarekiko zaletasun handia geneukan gazte asko batu ginen (Ruper Ordorika, Roberto Moso...); oso garai politak izan ziren.

—Zer esango zenieke hasten dauden kazetari gazteei?

—Ausartak izateko. Ez dira inposatzen dituzten esparrura mugatu behar. Irudimena

—Ez. Hau uzteko gogoak ematen didan gauza bakarra gonbidatuen istorioak entzutean sentitzen dudana inbidia da. Munduko leku zoragarrietan ibili direla esaten didate eta pentsatzen dut: zer egiten dut nik hemen, lau pareten artean? Baina jende horrek ematen didan energia ikaragarria da. Lehen esan dudana bezala, nire asmoa hasie-



ratik gizarteak jartzen dizkigun mugak (lana, etxebizitza...) gaintzea izan da. Irrati saio honekin, hemen bizi duguna baino askoz gehiago existitzen dela zabaldu nahi dut. Beste kulturak, beste herriak, beste paisaiak... gizarte alternatiba asko daude. Gainera, gustatzen zaidanean lan egiteko aukera daukat, inposizio barik. Hori pribilegioa da. Gura dudana egitetik bizi naiz.

—**Zein uste duzu izan dela saioaren arrakastaren sekretua?**

—Alde batetik, komunikabideek gehienetan bidaltzen dituzten mezuetatik ezberdina den mezu bat igortzea izan daiteke sekretua. Bidaien gaia oso gutxi lantzen da eta are gutxiago ni hasi nintzanean. Bestalde, Euskal Herrian bidaiarekin lotutako tradizio indartsua daukagu. XVI. mendeko balea-arrantzaleetatik, gaur egungo mendizaleetara. Bidaiatzera bultzatzen gaituen izpiritua daukagu. Gainera, gure arbasoak nomadak ziren eta hori, barren-barrenean bada ere, mantentzen dugu.

—**“Bidaiari mentala” izendatu izan duzu zeure burua. Nora bidaiatzen duzu?**

—Jai nintzenetik buruarekin bidaiatzen nabil ni. Ez naiz bakardadearen beldur, nire irudimena nahiko daukat ondo pasatzeko. Sortzea ikaragarri gustuko dut. Gainera, liburuez baliatzen banaiz honetan laguntzeko, oraindik hobeto. Unibertsotik eta espazio sideraletik bidaiatzen dut. Musikak asko laguntzen dit espazio sideraletik bidaiatzen, inongo drogarik hartu barik, noski. Musika psikodelikoak edo elektronik-espazialak beste unibertso batzuetara bidaiatzen laguntzen dit.

—**Eta gorputzarekin, zein da zure ametsetak bidaia?**

—Egin ditudan bidaia guztietan asko disfrutatu dut. Nire azken bidaia pasa den udan izan da, Jerusalemara. Buelatu nintzenetik egunero gogoratzen ditut han bizitakoak. Iluntzeetako argia, haize leuna... Jerusalemgo iluntzeetako haize leuna Jainkoaren laztana omen da. Nik ez dakit Jainkoarena den baina... Orain ulertzen ditut han gertatu diren borroka guztiak eta denak gura izatea Palestinaren zati baten jabe izan. Ez dakit lur santua den, baina oso herri berezia dela argi dago. Heldu bezain laster konturatu nintzen horretaz. Bidaiatzen dudanean lekuekin maiteminduta bueltatzen naiz eta berriro han nagoela amesten dut. Kubarekin,

adibidez, askotan egiten dut amets.

—**Zure lehen bidai luzea izan zen Kubakoa ezta?**

—Europatik kanpora egin nuen lehen bidaia izan zen, 1984. urtean. Nire aitona kubatarra izan eta asko hitz egiten zuten Kubari buruz nire etxean. Nik uste nuen hemen ondoan zegoela, ez nekien irla bat zenik ere. Oso herri hurbila izan niretzat. Gero urrun zegoela eta hara heltzea oso zaila zela jakin nuen; garai hartan ez ziren turistentzako bisa gehiegi ematen. Diru pixka bat aurreztu nuenean Kubara joan nintzen, birritan pentsatu barik. Ordutik bost aldiz joan

“Felix Linaresek, ezagutzen zuen esatari txarrena nintzela esan zidan”

naiz. Etxean bezala sentiarazten nauen herri bat da, errealitate egindako amets bat.

—**Bidaiari amorratua izanda, ez duzu gaizki eramaten herriak besteen ahotik ezagutu behar izatea orain?**

—Behin elkarrizketatu nuen brigadista batek zera esan zidan: *“Zuk hemen egon behar duzu gure (brigadistak) bizi dugun guztia transmititzeko”*. Agian arrazoa zeukan. Gainera, lanean oso gustura nago; urteak aurrera doaz konturatu barik. Hala ere, beti dago alde egitearen pentsamendua.

—**Hainbeste urte eta gero, zelan ikusten duzu komunikabideen mundua?**

—Ikuspegi ideologikotik begiratura, gero eta muga gehiago daude. Kapitalaren menpe dago dena eta autozentzura asko egiten da. Harremanek eragin itzela dute. Ez dago inolako

“Ez naiz bakardadearen beldur: nire irudimenarekin nahiko daukat”

askatasunik, monopolio enpresariaren menpe dago dena. 80ko hamarkadan askoz askatasun gehiago zegoen. Gainera, teknikaren menpe bizi gara. Lehen pauso batean egiten zenak prozesu luze bat behar du orain. Nire ustez, garapen teknologikoa (digitalizazioa, adibidez) oztipoa da, laguntza baino gehiago.

—**Lana alde batera utzita, herrira etorriko gara. Getxon bizi zara aspaldi, ezta?**

—Bai, betidanik. Bilbon jaioa naiz, baina txikitatik Andra Marin eman izan ditut udak, nire amonak han zeukan etxe handi batean (gaur egun nire etxea dena). Ahal nuen guztietan eskolara piper egin eta Getxora etortzen nintzen. Hemen nituen lagun guztiak. 1979an hona bizitzera etorri nintzen. Getxo nire haurtzaroa da. Norbaitek esan zuen behin haurtzaroa norberaren aberria dela eta Getxo nire aberria da. Andra Mariko lurretan 8.000 etxebizitza egin nahi dituztela entzuten dudanean korapilo bat egiten zait barrenean. Jende askoren oroitzapenak daude hemen eta ez dugu merezi hauek

galtzea. Getxoko jendeak euren tomateak eta letxugak eman dizkio, Algortari, Portugaleteri eta beste hainbat herriri. Diru gutxirekin aurrera atera dira asko eta asko, borrokatuz. Oraindik ikusten dira horren aztarnak; estolda sistema kaxkarra daukagu, adibidez. Baina nik nahiago dut horrela, auzoaren nortasuna bizirik mantentzen dugun bitartean.

—**1979tik hona asko aldatu da Getxo. Zertan nabaritu duzu gehien?**

—Eraikinek dena jan dute: landak, poztasuna, oxigenoa..., trafikoa dago leku guztietan. Herri izaera kendu digute. Gazte nintzanean herriko gazte guztiak ezagutzen nituen. Getxori buruz hitz egiten dudanean Andra Mari esan nahi dut nik, niretzat hori baita Getxo. Skautekoak, parrokiakoak, udatiarrak, Galeakoak, pijoak... denok ezagutzen genuen elkar. Kontrolik gabe-

ko hazkundeak, giro herrikoiaren desagertzea ekarri du. Gauzak lasaigo egin daitezkeela uste dut.

—**Bidaiari amorratua zara. Getxotik bidaiatzen duzunean nora joaten zara?**

—Barinatxeko hondartza, Azkorri, Galea, Arrigunaga... kostaldera orokorrean; baita Andra Marira ere, noski. Galea pribilegio bat da, nahiz eta kalte handia egin dioten eraiki

dituzten etxe guztiekin. Azkorri bere harkaitzeekin eta koloreekin, Barinatxeko olatuen zarata... ikaragarria da; olatuei begira gelditzen naiz eta dena ahazten dut. Behin, poesiak idazteko ohitura nuenean, Galeatik nindoan begiak itxita, nire pentsamenduetan erabat murgildurik eta labarra zegoenik ere ez nuen gogoratu. Eskerrak begiak zabaldu nituela bestela...

—**Andra Mari auzokide elkarteko kide zara aspaldi. Zelan ikusten duzu hain polemikoa izaten ari den hirigintza proiektua?**

—Argi dagoena zera da: enpresa eraikitzaileen menpe egongo dela dena. Hauek egiten duten indarra eta mahaia gainean jartzen duten dirua erabakigarria izango da, zoritxarrez. Herriaren ahotsak ez dauka zer eginik diruaren boteraren aurrean. Ohiturarekin, historiarekin eta herriaren sustraiekin amaitzeko kapazak dira. Diruak mugitzen du mundua eta Getxo ez da salbuespena. Gure lurra defendatzen duten politikari ausartak agertzen ez badira ez da ezer

onik egingo eta ez dut uste agertuko direnik.

—**Eta Imanol Landak egin duen planteamendu berriari buruz, ze iritzi daukazu?**

—Printzipioz ondo ikusten dut. Baina ez dakit herritarren haserrea baretzeko den soilik ala hipotekak direla eta, enpresa eraikitzaileek indarra galdu dutelako den. Erasora bueltatuko direla uste dut. Gure ohiturak eta gure

“Diruagatik, Andra Mariko sustrai eta historiarekin amaitzeko gai dira”

lurrak defenda ditzakegun bakarrak herritarrak gara.

—**Ze irtenbide proposatuko zenuke?**

—Ez dakit zein den irtenbidea. Getxo gehiegi hazi da; zer nahi dute eraikinak itsasertzeraino eramane? Andra Mari herrixka bat da eta herri bihurtu nahi dute. Arnas hartzera Gorbeako puntara joan beharko dugu laster, han eraiki-

tzea erabakitzen ez badute. Zer uste dute baguk ez dugula gura gure seme-alabek etxe bat izatea? Jakina baietz, baina gune berdeak behar ditugu. Hala ere, hor egongo gara.

—**Hor zaudete.**

—Bai, noski. Uste zuten lau baserritar zirela. Baina lau baserritar 3.000 pertsona bihurtu ziren manifestazioan. Herriak adierazi duen

elkartasuna azpimarratzekoa izan da. Andra Mariko lurak ez dira auzoko bizilagunenak soilik, getxoztar guztienak baizik, euskal herritar guztienak. Nik bizkaitarra naizelako egiten dut dena, kostaldea maite dudalako eta gehiegikerien kontra nagoelako. Ez naiz politikaria, herritar xume bat baizik eta herritar bezala borrokatzen jarraituko dut. ○

www.fresko-freskue.com

EZAGUTU ZURE ALDERIK FRESKOENA
[eros ezazu zure Udal Merkatuan]

100€-ko 50 opariren
zozketan parte hartzeko
www.fresko-freskue.com

Udal Merkatuak
aurrera doan herria



Kirol ikusgarria

Oso gutxitan jorratzen dugun kirolaren gaiari buruzko irudiak ekarri ditugu zenbaki honetan *Fotografia* ataleko orrialdeetara. Erruduna Txetxu Berruezo argazkilari bikaina da. Bere eguneroko jardunean prentsa argazkilari bezala dihardu, baina baita moda, arte eta publizitate lanak egiten ditu. Argazkilari zorrotza, garbia eta oso dotorea bere konposizioetan. Inguruan atera dituen kirol argazki hauek horren adibide dira.

Argazkiak: **Txetxu Berruezo**



BERNARD STRAM VELUX ESTROPADAREN HELMUGAN, 2007-05-01



BERNARD STRAM VELUX ESTROPADAREN IRTEERAN, 2006-10-22



SUPERKROS PROBA BEC-EN



SUPERKROS PROBA BEC-EN



LUDUÑA, 2006



LUDUÑA, 2006



PUNTA GALEA, 2006



PUNTA GALEA, 2006

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Tellexe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Tellexe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Zinebi jaialdia

Hilaren 26an hasi eta abenduaren 1a bitartean **400 film** pantailaratuko ditu



Aitzol Aramaio eta Unai Elorriagak hitzaldia emango dute *Un tranvia en SP*-ri buruz

Aurtengoa amaitutakoan urte bakarra faltako zaio Bilboko Zinema Labur eta Dokumental jaialdiari (Zinebi) 50. urteurrena ospatzeko. Hilaren 26an hasi eta abenduaren 1a bitartean guztira 400 bat film eskainiko ditu Zinebi. Jaialdian parte hartzeko asmoz, inoiz baino lan gehiago jaso dituzte: 2.648 film (75 herrialdeetatik), hain zuzen. Ohi legez, Zinebi dokumental, fikzio zein animaziozko filmak eskainiko ditu, bai lan laburrak baita luzeak ere.

Jaialdiko Nazioarteko Lehiaketan 92 lan lehiatuko dira; horietatik 9 euskal egileek ekoiztutako dira: *Columba Palumbus* (Uso basatia, K. Almandoz); *La carta del amigo* (J. J. Bakedano); *Limoncello* (Luis A. Berdejo, Borja Cobeaga eta Jorge Dorado); *Taxi* (T. Esnal); *Tex Norton* (J. Garaño); *Decir adios* (V. Iriarterena); *Las horas muertas* (H. Zubillaga); *Footnotes to a house of love* (L. Lertxundi) eta *Hezurbeltzak una fosa comun* (I. Oñederrarena). Horrez gainera, Sail Ofizial horretatik kanpo dokumental eta fikzio eta animaziozko beste

17 euskal film eskainiko dituzte.

Urtero legez, antolatzaileek hainbat ziklotan edo sailtan banatuko dute jaialdia, besteak beste, aurtengoak dira: *Afrikako bi begirada*, *Europako argi-ilunak*, *Zinebilab* (Kimuak etab.), *Euskal Filmotekako altxorrak* (Bilbao? -1960- emango dute), *Hiroshimako animazioak*, *Euskal Bideo artistak*, *Kolonbia laburrean*, *Zinema eta Diseinua*, *Info Euskadi*, *Clip-Klub* (bideo musikalak)... Zenbait egoitzatan egingo

«Getxon ere eskainiko dira Zinebiko film batzuk hilaren 26an eta 27an»

dira emanaldiak: Bilbon (Arriaga, Guggenheim, Arte Eder museo, Bilborock...), Getxon (Getxo Antzokia; hilak 26-27, 19:30, sarrera doan) eta EHUko Leioa-Erandioko campusean.

Bestalde, Marilyn Monroeren gaineko erakusketa ere egongo da ikusgai Bilbon (Zabalgunea Udal Zentroa).o

Informazio gehiago: www.zinebi.com

Egizu zuk zeuk soinura

Punk 1977+30 jardunaldiak garatzen dabilta Leioa-Erandioko EHUren kanpusean



Sex Pistols talde gogoangarria

Zelan edo halan aurten betetzen dira 30 urte Punk Mugimenduaren jaiotzatik, eta horren harira, EHUko Arte Ederren fakultateko Natxo Rodriguez eta Arantza Lauzirika irakasleen ekimenez (Pintura eta marrazketa sailen laguntzagaz eta Leioako campuseko Kultur bulegoaren babesagaz) **Punk 1977+30** jardunaldiak antolatu dira EHU (Leioa-Erandioko kanpusean). Antolatzaileek azaldu dutenez, "(kontra)kulturaren historiaren une zehatz baten gaineko begirada berreskuratu nahian, gure atenzioa behar du, dudarik gabe; ...Hasiberri den aro digitalaren erdian, irizpide punk batzuek oraindik sasoian diraute: "zeuk egin

ezazu", "etxeko teknologiak", "anti-copyright eta beste-lako auzi politikoagoek inoiz baino gehiago indarretan jarraitzen dute". Hil hasieran ekin zioten jardunaldioi Sex Pistols taldean oinarritutako *The filth and the fury* filmagaz. The Clash taldearen eta American Hardcorearen inguruko filmak eskaini dituzte ondoren. Alabaina, oraindik ere punkzaleak badauka gozatzeko aukera, ekitaldiak abenduaren 19ra arte egingo dira eta: filmak, dokumentalak, hitzaldiak, mahai-inguruak... Jarduera ondo-rengo egunetarako antolatu dituzte: hilak 29, abenduak 13, 17, 18 eta 19. Egitarauko ekitaldien berri jakiteko orri honetara jo dezakezue:

Informazioa: <http://punkbaa.wiki-site.com>

diskoak




Sworn Vengeance
Served Torture
Earache

Death metal astuna gustuko baduzu *Served Torture* talde mitikoaren azken lana ezin duzu entzun gabe utzi. *Sworn Vengeance* da bere azkeneko lanaren izena eta seguru aski zer esan handia emango du. Azken boladan egin bezala, orangoan ere Earache zigiluarekin argitaratu du diskoa 97an sortutako taldeak.



¡Gozalo! Bugalu...
Bilduma
Vampisoul

Soul musika jorratzen duen bilduma kaleratu du Madrileko zigiluak: *¡Gozalo! Bugalu Tropical*. Doinu latinoak afro-amerikarrek nahasturiko musika dantzagarri eta kitzikagarriaren garapena da. Bildumak *Alfredo Linares*, *Charli Palomares* edota *Los Hilton's* bezalako taldeak berreskuratzen ditu.



Hamabi amodio kanta
Anton Valverde
Elkar

Douze Chansons Amoureuses Du Pays Basque Français lanean, Charles Bordes konpositore frantsesak XIX. mendearen amaieran bildu eta landu zituen Iparraldeko hamabi amodiozko kantu herriko biltzen dira, gaur egun Pariseko liburutegi nazionalan gordetzen direnak.

diskoa >

Calzada eta Cano

Igor Calzada kantagile donostiarrak Harkaitz Cano idazlearen olerkiak musikatu ditu eta horren emaitza da *Fast Fatum* diskoa. Calzadak Luis Fernandez biolontxela eta Aitziber Viscarreten flauta eta saxofoia izan ditu lagun diskoa sortzeko orduan. Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak banatuko duen lanak Ivan del Campok egin duen bideoklip bat ere badaroa. Dozena bat kantuk osatzen dute *Fast Fatum*, horietako lau Calzadak idatzi ditu eta, esan dugun legez, gainontzekoak Canoren poemetan oinarritutakoak dira. Calzadak berak adierazi duenez, rocka du abiapuntu, baina beste motatako autoreak ere maite ditu: Radiohead, Debussy edota Bjork. Orain lan berezi hau entzutea baino ez zaigu falta!

diskoa >

Trapatoni Circus Band

Durangaldean sortu zen orain dela sei bat urte Trapatoni Circus Band taldea. Eurek diotenez, "beste barik rock, ska, jazz, reggae eta beste hainbat estilo uztartuz ondo pasatzeko, dantzatzeko eta jendea mugiarazteko". 2004an taldearen izen bera zuen lehenengo diskoa plazaratu zuen Madrileko WC Recordsegaz, eta aurten kaleratu dute bigarren lana Babel Musik diskoetxeagaz: (R)evolution. 12 euro balio du lan berriak, bi diskoak weborrian ere badituzte salgai.

Informazio gehiago: www.trapatoni.tk/

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikus!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

LIBURUAK

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Woody Allen idazlea

Anarkia Hutsa, Oskar Aranak euskaratu du zine-zuzendari entzutetsuaren azkenengo liburu

Zirikatzailea, probokatzailea eta ausarta, besteak beste; batzuentzat zoroa ere bai. Gorroto ala maite duzun sortzaile horietako da Woody Allen (Brooklyn, New York; 1935), batzuentzat goi-mailako maisu, besteak bihotzez (ez buruagaz) gorrotatzen dute. Baina zine munduan bada nor, eta hori ezingo du ukatu inork ez. Zenbaitek musikari legez ere ezagutzen dute, saxofoi-jotzaile eta jazzale porrokatu modura. Alabaina, Allen Stewart Konigsberg, hori baita bere benetako izena, idazle ere bada (gidoilari izateaz gainera), eta antzergile ere bai; berbarako hurrengo lanak argitaratu ditu: *Annie Hall*, *Stardust memories*, *Hannah and her sisters*, *Love and*

«18 umore istoriagaz osatu du azken lan hau sortzaile estatabatuarrak»

Death, Play it again Sam: a romantic Comedy in three acts, *Sidde Effects, getting Even*, *Without feathers*, *Interiors*, *Zelig*, *The purple Rose of Cairo*...

Eta 25 urte libururik plazaratu barik eman ostean, ekainean eman zuen argitara *Mere Anarchy* (Random House, 2007), Oskar Aranak *Anarkia Hutsa* (Meetok, 2007) izenburuagaz euskaratu duena. Oskar, Goya, Donostia... zinemaldietako



Woody Allen

saridunak 18 umore-istoriogaz osatu du azkenengo lana; horietako batzuk *The New Yorker* egunkarirako idatzi zituen. Aditu batzuek *The Insanity Defense* umore antologiaren jarraipentzat jo dute lan hau. *Anarkia Hutsa* lanean berezkoa duen ironiagaz eta ohiko duen gogoeta gaiak emateko bere estiloan esaterako hurrengo berbaak jorratu ditu: "depresiotik atera nahian dabilenean gizarteak altxatzeko eskaintzen dizkion bide antzuak, berak beste laguntzeko dituenak..."

Woody maite duen euskaldunak zorioneko dago oraingoan; alde batetik, ia aldeberekotasunez gozatu ahalko duelako euskaraz, eta bestetik, beretzat Woodygaz gozatzea beti delako plazera. Hala bada, on egin! Eta bestela bada, bestelakorik ere badago menuan! ○

liburuak



García Larreche: un...
Javier García-Larreche
Pamiela

Rufino García Larreche II. Errepublikaren txertaketan paper garrantzitsua bete zuen Nafarroan. Iruñeako altxamendu faxistatik bizirik irteera lortu ondoren, Baionara ihes egin eta han hil zen 1956an. Bertan errefuxiatuei lagundu zien.



Egunero hasten delako
Ramon Saizarbitoria
Erein

Gazteak dira eleberrir honetan protagonista positiboak. Bi ezaugarri biltzen dituzte bere alde: gazte izatea eta artean bizitzeko geratzen zaie bide luzea. Ilusioa eta esperantza alaitasunagaz batera.

[kirola]

Jose Ramon Aretxabaleta, Aretxa I > hari-jasotzailea

"Bizitza osoa honetan emon dut eta triste da ikustea zelan dabilen hiltzen"



Bere errekorra: bi eskuakaz 206 kg; esku bakarragaz 156 kg; 7 min-ko 3 txandatan 150 kg-koa 21 aldiz

Gazteei itaunduz gero "Perurena" erantzun-go dute, asko jota Saralegi eta Aimar ere aipatzeko gai izango dira, ez gehiago, zoritxarrez! Helduek, agian, zerrenda apur bat luzatuko dute, eta horien artean zenbaitek *Aretxa* aipatuko du. Jose Ramon Aretxabaleta "Aretxa I" Algortan jaio zen (1941) eta 16 urteagaz hasi zen harria jasotzen. "Fadura ondoan iturri bat zegoen, orain bere hor dago, han bazegoen harri bat, labrabakoa, eta ez dakit zergatik baina akorda zitzaidan igo behar nuela hura lepora; gero, Jose Mari Maguregik esan zidan ez ibiltzeko horrela, berak bazeuzkala behar den moduko harriak eta joateko probatzen..."; dauka akorduan. 35-36 urteagaz utzi zion berak harria jasotzeari, baina oraindik ez du alboratu horrekiko pasioa. Azken harria lurrean utzi baino lehenago: 397 saio egin zituen hari-jasotzaile legez, 11 akuilari modura, 5 aizkolari bezala, eta sokatiran ere jardun zuen. Herrikirolen maitale amorratua da eta berak dioenez 3.672 herri-kirol probetan egon da zale moduan. Herri-kirolen Bizkaiko Federazioko presidente izan zen eta arbitro-epaile ere bai. Hari-jasotzaile izateari "utzi" ostean, belau-

naldi berriak prestatzeari ekin zion eta horretan dihardu: "52 hari-jasotzaile inakasle izan naiz, orain bi ikasle dauzkat zuzentzen dudana Leioako Kirolzaleak hari-jasotzaile eskolan". Ostera, saminez dakusa etorkizuna: "galzorian dago, laster zerbait folkloriko legez lotuko da: plazara jendea hurbiltzen da, baina

«Oraingo harriek beruna daukate barruan; harriak ez dira harriak»

15 minutu pasa eta badoa, ez du ulertzen, harri altxatzea bakarrik dala pentsatzen du... Belaunaldi berriek bere, Aimar fenomeno eta gutxi batzuk kenduta, ez diote behar duen denbora eta prestakuntza ematen, dena ez da indarra; hedabideek arretarik ez... Bizitza osoa honetan eman eta triste da ikustea zelan dabilen hiltzen". Kexa sortzen dizkieten bestelako kontuak ere badira: "harriari beruna sartzen diote, barrutik dena da beruna, kanpoko azala bakarrik da harrizkoa; harriak ja ez dira harriak!; gero, inakasle/monitore asko dabilta hari-jasotzearen teknikak-eta ez dakizkitenak, eta inakasten dabilta!". ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris.S.L. SERVICIO



94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Willy > graffiti egilea

“Leku arriskutsuetan margoztea gustatzen zait, adrenalina igoera hori behar dut”



Willy, berak bere buruari ateratarako argazkian

Anonimotasunean mantentzea erabaki duen Willy graffiti egilea da. Orain dela gutxi *Night-Play* bideoa kaleratu du. Bideoan, Willyk eta bere lagunek graffitiak nola egiten dituzten erakusten da. LiNE ezizenagaz sinatzen ditu Willyk bere lanak, taldelanak berriz POK izenarekin sinatzen dituzte. 1998an hasi zen graffitiak egiten eta zergatik egiten duen galdetuta, ez dakielako erantzun digu: “Graffitiak egiteak arazo mordoak eragin arren, behar-beharrezko dut horiek gauzatzea”.

—Graffiti egilea artista al da?

—Badaude artistak direnak eta artistak ez direnak. Kontua da artea zer den oso subjektiboa dela. Ondorioz, norberak sentitzen duena dago jokoan: nik neure burua ez dut artistatzat jotzen, ni graffiti idazlea naiz. Duda barik, kultura oso bat da graffitiaren atzean dagoena, bizitzeko modu ezberdin bat.

—Non egiten dituzu graffitiak?

—Nik batez ere tren eta metroan egitea gustuko dut. Herialde ezberdinetako trenetan bidaiatzeak eta margozteak asko motibatzen nau. Noizbehinka, lanaz kokoteraino zaude-

nean, lagunei deitu eta auzotik graffitiak egitera ateratzen gara gauean. Orain dela asko ez dut egun argiz margozten, ilegaltasun hori bilatzen saiatzen naiz beti: “ezin daiteke egin, baina egiten da”. Hala ere, eremu pribatuak errespetatzen ditugu, ez dugu kotxerik margozten, adibidez. Leku publikoetan margozten dugu. Beharbada gazteagoa zarenean bai, eremu pribatuak errespetatzeaz paso egiten duzu eta nonahi margozten duzu.

—Esanahirik al dute?

—Graffiti 70eko hamarkadan sortu zen New Yorken, ordurarte ez zegoen. Mezulari greziar bat bere ibilbideak gogoratzeko sina-

durak egiten hasi zen, Times New Roman egunkariak elkarrizketatu zuen arte. Aurrerantzean jende mordo hasi zen bera bezala sinatzen. Hainbeste jende egonik, bakoitzak besteengandik bereizteko trikimailu ezberdinak erabiltzen hasi zen: errotulagailu lodiagoa, leku altuagoetan sinatu... Horra hor graffitiaren eboluzioa. Honegaz guztiaz esan gura dudana da, berez graffitiak ez dutela esanahirik: izena besterik ez da. Protesta bilatzen duten graffitiak egon badaude, baina gitxi dira. Garrantzitsuenak zure izena ikustea da, edo hobeto esanda, beste graffiti egileek zure izena ikustea.

«Gauean margozten dut, ilegaltasun hori bilatzen dut»

—Zuon artean lehiarik al dago?

—Jakina. Lehiarik gabe ez legoke horrenbeste graffitiarik kaleetan. Niretzat motibazio handiena besteen gainetik egotea da, beste graffiti egileek nire izena ikustea eta zabaltea. Lehia osasuntsua da hau. Hala ere, zenbait tokitan ez da hain osasuntsua, eta haserreak eta benetako borrokak sortzen dira. Trenak margozten egoten dira batez ere borroka handienak.

—Justiziagaz arazorik izan al duzu?

—Bai. Zer graffiti egilek ez du inoiz agintaritzareguz arazorik izan! Arazo handienak atzerrian eduki ditut. Hemen, egia esan, nire hankei esker oraindik ez dut arazorik eduki; badakit nor naizen susmatzen dutela, baina... denboraguz ikusiko dugu zer gertatzen den. Baina honek ez dit motibazioa galarazten, txarrena graffitiak egiten eman behar duzun denbora da: hara joan beharra, margoztea, argazkia egitea, errebelatzea... Hala eta guztiz ere, merezi du! o

AKI BILBO-LEIOA

Urteko preziorik onenak

ERRETZIMAZKO ARMARU MULTZOA
 Erato-eremua: 169,95€
 Karga: 149,95€
 Tel: 944 91 46 09

-33%
 NO BURTZIPERRA
79,95€

SEKULAKO BEHERAPENAK

-35%
 NO BURTZIPERRA
6,45€

EXTREME AC4 ZORU LAMINATUA (CLIC MONOLAMA)
 Kola gabeko alubakura sistema, 110 x 220 cm, 2,255 m² / paketea. Hartz, xalokan eta hartz erakutsen lar dardara. Akzio-eremua errespetatzen. 10 urteko bermaketa.
 Tel: 944 91 46 09

-20%
-15%
-20%
-35%
-40%
-30%
-40%

"TOSCANA" HIDROMASAJEKO KABINA
 170 x 220 cm
-12%
 NO BURTZIPERRA
259,95€

AKI
 Ideas más a mano

AKI BILBO-LEIOA
 Artea Merkatal Zentroa
 Tel. 944 91 46 09 e-mail: bilbao@aki.es
 www.aki.es

AZAROPAREN 29TIK ABENDUAREN 15A ARTEN
Brikolajea - Lorezaintza - Dekorazioa

**EUSKARA
BIZIBERRITZEKO
PLAN NAGUSIA**

*Leioa euskaraz
zure iritziaren bila*

Leioan euskararen erabilera sustatzeko zer gehiago egin daiteke? Eman zure iritzia, egin zure ekarpena.

**LEIOAKO
PLAN ESTRATEGIKOA**

2004-2007
2008-2011

Euskara zerbitzua
Leioako udALA

Arriluze

Etxeko tarta gozoak nahi duzun tokian



Alberto Etxeandia eta bere ama, Larrea andrea

Amaren lagunentzako tartak etxean egiten hasi zen Alberto Etxeandia Larrea algortarra. Hiru hozkailu eta irabiagailua sukaldian, erretiluak jartzeko apala korridorean, logelako armairua sukaldako tresnaz beteta... hiru urtez horrela ibili eta gero Illeta kalean txokoa hartu zuen Albertok, ijitoen merkatuaren alboan: *"Eskemak eman behar dizkiet ama eta aitari, nirekin izan duten pazientziagatik"*. 1992an hasi zuen bere gozogile ibilbidea, ostalaritza ikasketak bukatu ostean: *"Gozogintza sukaldaritza baino gehiago gustatzen zitzaizidan"*.

Kalitatea, prezioa eta zerbitzu ona dira Arriluzeren hiru premisa nagusiak: *"Oso garrantzitsua da hau gozotegi handiekim lehiatu abal izateko"*. Tartak enkarguz egiten ditu Albertok eta etxeetara zein jatetxeetara eramaten ditu. Sagar edo anana mousse pastela, txokolate eta

laranja mousse tarta... betikoez gain, aukera zabala da, hala ere, *"jeneralean gauza berriak probatzea kostu egiten zaio jendeari"*. Diabetikoentzako azukre bako espezialitateak ere eskaintzen ditu Albertok. Honez gain, trufak, bonboiak eta beste hainbat gozoki topa daitezke berean. Eguazten eta zapatuetan, merkatu egunetan, palmeratxoak, opilak eta croissant beteak eskaintzen ditu, guztia egin berria. Gogoangariak dira polboroiak: *"Hauek egiten inakatsi zidan gizonak Espainiako polboroi txapelketa inabazi zuen"*. Gabonetan lanez gainezka egoten da errege-uztaiak prestatzen. Ez du sekula publizitaterik egiten, hala ere, gero eta jende gehiago hurbiltzen da Arriluzera: *"Ahoz-abokoa enaginkorrena da"*. Etxeko tarten zapore gozoa estimatzen dugula izango da agian. ○

Illeta, 12 ALGORTA / Tel.: 94 430 21 96

**KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA**

*Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!*

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

**GOZOLABEA
GALDARETXE**

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

**ARTAZA ETXEA
JATETXEA**

• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

**Asador
Goieztzi**



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gauzez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Turikaldoi

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezi, 10 | T: 94 460 57 57 - ALGORTA

CAFE
usategi
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Lan kontuetan maitasunezkoetan baino interes handiagoa duzu. Jarrera hau zure alde erabil dezakezu, jende berria ezagutzeko aukera eskaintzen dizulako. Zure kontra ere itzul daiteke, eta zu bakardadera bultzatu.</p>	<p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Emozionalki izugarriko oreka egoerara iritsi zara, behar zenituen egonkortasuna eta ziurtasuna topatuz. Baina kontuan eduki ghegiezko ziurtasuna edukitzeak jendeak esaten duena gaitzestera eramane dezakeela. Ez itzazu lagunak atzean ahaztu.</p>	<p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Irtenbiderik ez duten egoerak topatuko dituzu. Baina zure senari jarraituz hasiera batean ematen zutena baino errazagoak irudituko zaizkizu gertakari horiek. Abilezia honi esker jende askorentzako euskarri sendo bilakatuko zara.</p>
<p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Aspaldidanik gaixotasun bat baduzu laster gutxi zendatuko zara. Aurrezteko unerik egokiena ez izan arren, horretan pentsatzea komeniko litzazuke etorkizunari begira, badaezpada ere. Lanean sormena oso bizi edukiko duzu.</p>	<p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Hau marka! Beti eztabaidan zure bikotekidearekin eta oraindik ez zara oharu ika-mika horiek ez dutela ezertarako balio. Ideia berriak dituen norbait ezagutuko duzu lanean, eta oso proposamen erakargarria egingo duzu.</p>	<p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Denbora gehiegi igarotzen duzu etxe zuloan sartuta. Ondo etorriko zaizu bidaiatxo bat egitea, horrela gauzak beste modu batera ikusiko dituzu. Eguraldia aldatuz doan neurrian gehiago mugitzeko gogoia izango duzu, baita zure lanean ere.</p>
<p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Zeure buruari gehiegi exijitzen diozu eta horrek presiopean egotera bultzatzen zaitu. Osasunak eskertuko dizu atseden handiago hartzea. Besteen laguntza eskertzekoa izaten da, zergatik uko egin?</p>	<p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Ez duzu aldatzeko asmorik? Bada garaia helduago egiten hasteko. Horregatik, esaterako, min egin diezuen pertsoneri azalpenak ematen hastea ez da ideia txarra. Guztiak, onerako, harrituko dira eta zu hobeto sentituko zara.</p>	<p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Ez dakit oharu zaren baina zure bikotekidea bakarrik sentitzen da eta berataz ahaztu zarela uste du koitaduak. Laztan gehiago eskatzen ari da. Denbora larregi ematen duzu bulegoan eta lantzean behin deskonektatzea ez da txarra.</p>
<p>META</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Lan egitea, kalera irtetea, lagunekin geratzea... dena ere kostatu egiten zaizu, erabat nekaturta zaude. Baliteke aspaldi honetan daramazun erritmo biziak kalteordaina pasatu izana. Lasaitasunez aurre egin betebeharrei.</p>	<p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Arriskatzeko unea iritsi zaizu. Berria edo ezezaguna denari beti izan diozu beddura, ez duzu birritan pentsatu gabeko pausorik eman. Aldatu egin behar duzu. Bizitzari aurre egin behar diozu, honек zu jan baino lehen.</p>	<p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Bihotz onegia edukitzeak kalte handia egingo dizu, baina maite duzun pertsona batek lagunduko zaitu. Eta, nor daki? Agian, maitasuna ere piz daiteke zuon bion artean.</p>

MUNGIÀ
OKINDEGIÀ

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.


KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA




denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Ipar., orratzak, buruorratzak. 2. Irabazi den lehiaketaren ordaintzat hartzen den ondasuna. Hosto. 3. Oinarizko janari. Frantziako eskuindarren alderdi ohia. Tulioaren ikurra. 4. Bailearen koipea. Barazki mota. 5. Ustekabeko esaldi bitxi barregarria. 6. Emakumearen hileroko berezko desagertzea. 7. Lizarrako ibaia. Ogi, hitz elkartetan. Eta, ingelesez. 8. Lehen pertsona. Zati. Titanoaren ikurra. 9. (Errep.) Ezkilaren ukaldia. Gipuz., eliza. 10. Ezeztapena. Ez emeak.

Goitik behera

1. Bakartze. 2. Saguak harrapatzeko tresnak edo arteak. 3. Lege hauste handia. Har ezan. 4. Bi. Zoro. Lehen bokala. Bokala. 5. Oti, intsektu jauzkari, nekazariantzat oso kaltegarri. 6. lodoren ikurra. Sabaikaria, mihia aho sabai gogorrera hurbilduz ebakitzen den ahotsa. 7. Galdetzaila. Dauka. Pinu. 8. Bromoaren ikurra. Erraz. Iridioaren ikurra. 9. Artzainen lan eta bizibidea. 10. Zaldiek eta beste abere batzek lepagainean dituzten zurden multzoa. Auhanak, deitorea.

Soluzioak

K	V	R	R	V	V	O	K	U
V	Z	I	E	L	E	N	V	D
I	T	L	V	T	V	I	N	I
D	N	V	T	O	V	G	E	
V	I	S	U	P	O	N	E	M
V	A	I	D	L	V	A	T	E
V	Z	V	A	R	A	L	U	M
M	T	R	P	R	V	E	O	G
I	S	A	R	I	A	O	R	I
I	S	K	I	L	I	N	B	A

asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- Nafarroako semea
- Zientzia gizona, fisikan aditua
- Jakiunde-ko arduradun nagusi izendatu berri dute

> Aurrekoaren erantzuna: Juan Mari Arzak
> Irabazlea: **Jone Fernandez Agirre**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

•Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



•Freexkue liburua

www.argia.com



MARIBE UFRRESTIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Areetako Zugatzarte Futbol Taldea, 1930-31

“Campeón de Grupo. Campeón de 2ª Categoría y Campeón de Torneo de Promoción 1930-1931”, hauek dira armarriri bitxi honen inguruan agertzen diren, eta beharbada irakurri ezin dituzun gaztelaniazko hitzak.

Zugatzarte futbol taldea 1921ean sortu zen. Gobelondoko futbol zelaian jokatzen zuten, Ibaiondotik (Arenas Club-aren futbol zelaia) oso hurbil. Zugatzarteko (maila erregionalak) jokalaririk onenak Arenas Club-era (Lehen Mailakoa) pasatzen ziren gero, talde biak oso ondo konpontzen ziren eta.

36ko gerra eta gero, ez zuten gehiago txapelketetan jokatu, baina 1971an, taldearen sorreraren 50. urteurrenean, Arenas Club-ak berak sortu zuten berriro Zugatzarte izeneko gazte mailako taldea, ordezkotako talde bezala. o

Azaltzen direnak: Landeta, Garcia II, Garcia I, Ferrer, Urquiza, Azpuru, Urresti, Manzano, Dulce, Heras, Zarraonandia (Athletic-eko Telmo Zarraonandia, “Zarra” famatuaren anaia), Martin, Turrez, Landa, Emaldi.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

KARMELE JAIO > idazlea

“Gero eta gehiago gustatzen zaizkit goizeko orduak”

Testua: **Ander P. Goikoetxea**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Inguruak eragiten dion pertsona.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Egia esan, niri ez zait gustatzen asko protagonista izatea, txikitatik oso lotsatia izan naiz. Baina aukeratzekotan... Iciar Bollainek egindako edozein filmetan.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Historian zehar pertsonaia asko daude miresteko. Historian gauza handiak egin dituztenak baina nolabait gerizpean gelditu direnak dira nik miresten ditudanak. Esaterako, Martin Ugalde.

Aitor dezakezun bizio bat.

Txokolatea.

Gaua ala eguna?

Beitu, duela urte batzuk, gazteagoa nintzenean, gaua esango nuke. Baina gero eta gehiago gustatzen zait eguna, eta gero eta gehiago gustatzen zaizkit goizeko orduak.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Urte bete libre hartzea gustatuko litzaidake gutxinaka-gutxinaka herrialde ezberdinetatik bidaiatzeko.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzazuke jardutea?

Lokuzioak egitea beti gustatu izan zait, alegia, bikoizketa lanak egitea.

Eta irakurri duzun azken liburua?

Oraintxe bertan Carson McCullers azken liburua irakurtzen ari naiz.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Maitate ditudan pertsonak gabe ezin naiz bizi. Oraintxe bertan esango nizuke nire seme jaioberria gabe ezingo nukeela bizi.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Itsasoari begira dagoen Lekeitioko *Tala*. ◊

LABURREAN— Karmele Jaio Gasteizen jaio zen 1970ean eta gaur ere bertan bizi da. Leioako fakultatean kazetari-tza ikasi zuen eta hedabide ugarian egin du lan. Idaztea betidanik gustatu arren, nahiko berandu hartu zuen modu serio batean idazteko ohitura. 2004an kaleratu zuen bere lehenengo liburua: *Hamabost zauri* izeneko ipuin bilduma. Literaturaren arloan zenbait ipuin lehiaketa irabazi ditu, esaterako VII. Igartza Saria 2004. Idazle berrientzako beka honi esker *Amaren eskuak* bere bigarren lana idatzi zuen. Kaleratu duen azkeneko lana *Zu bezain ahul* narrazioa bilduma da.



Logela eta Gose

GETXO ROMO
SANTA EUGENIA PLAZA
ABENDUAK 1, ZAPATUA, 20:00ETAN.
SARRERA: DOAN.